

Arrasate

P R E S S

1998ko
Ekainak 19
412. zenb.

San Joan sua 1448-1998 Zoritxarra eta jaia

IKUSPEGIA

IBAN DEL CAMPO


IKUSKIZUNAK

KONDHARIAN

IBITZIA

J. M. VELEZ DE MENDIZABAL





**San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
Arrasateko Udalbatzak
arrasatear guztioi**



ARRASATEKO UDALA

Alkatearen agurra

Festa egunak gure artera zaizkigunez gerturatu, gure herria egun hauetan ezin inolaz ahaztu giro ederra izango denez, guztiok ondo pasatu San Juan jai zoriontsuak opatutzen dizkizugu.



“Guk ditugun datuen arabera, parrokiak 16 aldare eduki izan ditu. Pentsa zenbat aldaketa egin diren!”

Javier Ortega



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitiñ Alende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tel.: 79 02 26) **Disoluzioa:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriomaila:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro Bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salnz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopti, Jon Ozabela, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketako arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontertaturia.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udalerria laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

14

milioi pta San Joan jaien aurrekontua

Aurtengo San Joan jaiek 13.885.000 pta.ko aurrekontua izango dute, orain hamar urteko San Joanetan baino ia 2.500.000 pta gehiago. Diru gehien zezanak, musika eta su artifizialetan joango da.

ITURRI ONETIK

PPren enplegu bulegoa

Partidu Popularra konturatuta dago irudi arazo bat duela Euskal Herrian. Ezin da iritsi jende askorengana irudi klasista, goi mailako eta kanpoko bide duelako. Profesionalak falta ditu, Euskal Herrian batez ere. Oraingo egoeran, gainera, konturatzen da oso zail egiten zaiola zerrendetan jende ezkondua aurkeztea, hauek ez daudelako arriskurik hartzeko prest.

Horregatik, lanik gabeko profesional gazteen atzetik dabil: abokatuak, ekonomistak... Ezkonduza ez dauden gazte hauek gertuago egon litezke PPko zinegotzi bihurtu eta arriskuak hartzeko. Hori dela eta, irudi kanpaina bat prestatu dute, laster Arrasatera iritsi litekeena.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 19

• Gaeuz: Irizar, Erguin.

Larunbata, 20

• Gaeuz: Amezua, Santa Marina

Igandea, 21

• Gaeuz: Zabala, Zarugalde

Astelehena, 22

• Gaeuz: Ruiz, Maala

Asteartea 23

• Gaeuz: Morales, San Andres

Osteguna 24

• Gaeuz: Azkoaga, Ferrerías

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igalatorioa . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara . . . 76 55 76

DYA

Antzuola . . . 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdia) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
. . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantziak . . . 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088

Ertzaintza

Arrasate . . . 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Argindarra (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78

Garraioak

Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

KIUB-OMIC . . . 79 51 55

Monterron liburutegia

Monterron . . . 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia . . . 79 58 77

PIZTI BASATIAK

Jon Idigorasen aske uztea Jzela eta, pozak gainezka ginenean, espainiar errepre-sioaren pentsalariak beste basakeria bat burutu dute.

Hamazazpi urte preso daramatzen eta euskal preso politikoa den Pedro Guridi Arozena, duela bi urtez legal-ki bahiturik eta gaisotasun larri batek jota dagoena, esta-tu espainiarreko beste espe-txe batera eraman dute, Arrasate 900 kilometrora dago-en Granadako espetxera hain zuzen.

Hamar egunez torturatu zuten komisaldegian eta dago-eneko Carabanchel, Soria, Alcala, Herrera de la Man-cha, Salto del Negro, Murcia eta une honetan Granadako espetxeak ezagutu ditu. Den-bora luze honetan ez du ezta minutu bat ere igaro Euskal Herriko espetxe batean.

Urte luze hauetan jipoiak, isolamendua eta medikuen asistentziarik eza eguneroko ogia izan dira Pedrotxorentzat. Bidaia luzeak, erasoak, diru estuasunak eta sakabanake-taren eraginak bere markak utzi ditu Pedrotxoren guraso-en aurpegietan. Eta haren lagunok amorrutan eta ezinta-sunean murgildu gara basa-keria berri honen aurrean.

“Sendotasuna”ren mezua argi gera dadin, gizaki preso edo ez presoen oinarrizko giza eskubideak urratzen dira egunero. Politika ausarten gabeziaren ordezko, babes-gabekoaren aurkako harro-puzkeria da nagusi. Mayor Oreja bezalako pertsonaien ahotan demokrazia hitza aipa-tzen den bakoitzean, zentzu-gabea bihurtzen da. Gober-nuko presidentearen “hutsen” ondorioz, espainiarerikarik bortitzena uzten dute age-rian.

Hau guztia dela eta, ezin pausorik espero ez erakunde, udal, Gasteizko Legebiltzar, ezta Europako Parlamentuko

giza eskubideen batzordetik ere. Politikoen gainean egi-ten den gizarte presioa izan-go da egoera zentzugabe eta legez kontrako hau konpon-duko duena. Zuen esku dago.

Euskal presoak Euskal Herrira!

*Jaione Guesmes
Senideak.*

SAKRATUAREN ITZULTZEA

Eguerdiko kafetxoa ari nin-tzen hartzen egunero joa-ten naizen S. Andres auzoko taberna polit batean. Kafetxo garaian, periodikua debalde irakurtzen ari nintzenean, irra-tia ari zen jo eta ke. Halako batean, “‘Hil da Jainkoa’ abestia entzungo dugu”, esan zuen irratilariak. Oihuka eta garraxika “Hil da Jainkoa, hil da Jainkoa”, abesten zuten zarata artean. Nire inguruko jendeak, egunero elkar ikus-ten dugun gazte ezagun batzuek, berean jarraitzen zuten, entzun ere egin gabe.

Nietzsche etorri zitzaian burura. Eroaren pasadi-zoa: “Basotik irten zuen ero batek. Eta oihuka hasi zen: Jainkoa hil da. Zuek hil duzue. Eta inork ez zion jaramonik egiten, inportantziarik emat-ten”.

Eta Nietzschek ondorio-ak atera zituen: “Ez zarete konturatzen..., baina Jain-koa hil bada, ez dago ez goi-rik, ez beherik, ez iparririk, ez hegorik... Norabiderik ez dago”. Hala ere, jendeak bere-an segitzen zuen Nietzsche-ren garaian.

Gaurko gizon-emakume askoren egonezina, bihotz mina, umore txarra, norabi-dea jakin nahi eza, historikoki Nietzschek profetizatutako gertaera da, nahiz eta intere-satuak ez konturatu.

Baina, esaten dutenez, ba omen dator “sokratuaren itzul-tzea”. Etxeko atetik bota

genuena lehiatilik sartzen ari omen zaigu. Milenarismoa-ren ondotik edo egonezina-ren ondorioz, ba omen dator sakratua. Sakraturik gabe ezin omen gara bizi gizon-ema-kumeok.

Edozein liburudendatarra goazelarik, inoiz baino liburu gehiago dago. Sakratuaren ingurukoak erosten dira: para-normologia, esoterismoa, magoak, tarotak, teosofiako liburuak, etab.

Azken hamabost urteotan aldatu egin dira jendearen interesak. Horren seinale da liburudendetan saltzen dena.

Norbaitek esan du bai Europako egoera bai Euskal Herrikoa ere hemendik doa-la eta esaldi honetan laburbil daitekeela: *Erlijioa bai, Jain-korik ez*. Sakratua bai, Jain-ko personalik ez.

Erlijioa gure une bajuak altxatzeko, pozaldiak apain-tzeko eta gure temperatura baja leuntzeko, gure psiko-logia depresiboa zuzentze-ko..., sakratua gure zerbit-zura. Baina Jainkorik ez, batez ere kristau Jainkoa. Zer-gatik ote?

Ez ote da izango kristau tradizioko Jainkoa gure ahu-lezien eta bizitzeko nekeen saneatzaile baino, “zer egin duzu zure anaiarekin?” gal-detzen duen norbait delako eta galdera horri erantzuteak *kon-bertsioa* eskatzen duelako?

Kristau esperientzia jato-rreran ezin dira aldendu eta are gutxiago banatu mistika eta etika. Eta etikaren esanahi jatorra galtzen ari direnen aurpegia ikustetik sortzen da.

*Juan Jose Goenaga
S. Andresko parrokoa*

Mende bukaerako bitxikeriak

Eskatzea eta amets egitea libre dela esaten denez, mundu hau utzi baino lehen egin nahi ditudan hainbat xeblekeria aipatuko dizkizuet hurrengo lerrotxoetan.

Hasteko, eta *idearium* honen tonuarekin bat egiteko, Udalatx mendia kolore guztietako paperez inguratu eta, lazotxo eta guzti, San Joan gau sutsuaren ondoren, Arrasateko bizilagunei oparitu nahiko nieke; batez ere guztion harridura aurpegi argazkiak ateratzeko eta sortuko lirakeen tirabirekin gozatzeko. Inolaz ere ez nuke argituko opari erraldoi honen egilearen nortasuna, urteko egun luzeenaren (San Joan gaua) miresgarritasuna



Iban Del Campo

Udalatx kolore guztietako paperez inguratuko nuke

areagotzeko.

Azken boladan askoren ahotan dabilen mende bukaerako beste arrarokeria horietako bat, ilargian duplex bat alokatzea da. Oporrak grabitaterik gabe. Falta zitzaiguna! Horixe baino askoz trebeagoa iruditzen zait itsaspeko batean, teleskopio eta guzti, 20.000 lekoako bidaia egitea.

Ondoren, mende honetako nire azken urtebetetzea, Michelangelok erdituriko Capilla Sixtina-n, nasaikeriaz gainezkako festa batekin ospatzea. Hori bai bitxikeria ederra! Eta edateko,

absenta.

Nabarmenkeria hauek inoiz beteko balira, ez nintzateke geratuko nire azken nahikaria asetu arte. Adibidez, Singapur Air-


lines-eko aeroneska batekin Bermudas-eko Triangeluan desagertzea. Iturri onetik dakit Singapurreko azafatak mundu honetako ederrenak direla.

Gorputzari atsegina eman ondoren, eta bitxitasun gehiago egin ahal izateko, edozeinekin hartuko nuke "kafe torero" horietako bat (txikiteoa bukatu eta zuzenean, ezer jan gabe, kafe eta edari gogorra goetara jauzi).

Hurrengo egunean, Bilboko Guggenheim museoko segurtasun sistema gainditu nahiko nuke, eta gaez, 50.000 pezetagatik, Neguriko senargabe dirudun baten bihurkeria betetzeko, zurgagailua larrugorritan pasatuko nuke bere etxean.

Okerkeria hau zuzentzeko, arrosa orriz estalitako ohe batean sartuko nintzateke erreginarik lirainenarekin, hurrengo mendera arte. Eta hau hola bazan sar dadila kalabazan, eta irten dadila Arrasateko plazan.

S. Carrascal S.L.



Hemen bertan egindako

- **Sukalde altzariak**
- **Horma armairuak**
- **Bestelako armairuak**
- **Etabar**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82

Arrasate

LANAK

GENERAL GARRON

Noiz behinka, kalea itxita egongo da ordu batzuetan.

KONTZEZIÑO AUZOAN

Bidea asfaltatzen ari dira.

OBENERREKAN

Jolastokia berrizteko lanak.

TAKOLON


Biribil berria egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.

GARIBAI - S. ANDRESEN

Semafoeren pareko zuloak estaltzeko lanak.




Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena

Ilargia

Mezak



OSTIRALA 19

LARUNBATA 20

IGANDEA 21

ilberria

Zeruak oskarbi egongo dira, nahiz eta tarkeka lainoak izango diren. Temperatura gora.

Zeruak oskarbi egongo dira. Temperatura igotzen eta haizeak Hegoaldetik joko du.

Zerua oskarbi eta temperatura ez da aldatuko. Haizeak hegoaldeetik joko du.

San Joan egunean, ekainaren 24an, ilberria izango da.

San Frantzisko

(Frantziskotarren elizan Parrokia berri arte)

Larunbatean

09:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (euskaraz)
11:00 meza nagusia.
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Zirkulazio etenak San Joanetan

- **Entzierroak egunero:** Garibai kalea moztuko da entzierroko orduetan, 08:45etatik 09:15etara.
- **Larunbata, 20:** Haurren danborrada dela eta, Nafarroa etorbidea, Biteri, Garibai, Maala eta Portaloitik plazarainoko bideak moztuko dira.
- **Asteartea, 23:** Helduen danborrada dela

eta, 22:00etatik 00:30etara Nafarroa etorbidea, Biteri, Portaloia, Olarte, Otalora, Maalako bidegurutzeta, Garibai, Biteri eta Portaloitik plazarainoko bidea moztuko dira.

- **Larunbata, 27:** Kars txapelketa, Biteri, Garibai eta Zerkaosteta kaleak moztuko dira 14:00etatik 20:00etara. Kale horietan ezin da autorik utzi.



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.




Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak duzu.

Ongizate Aurrezpenaren abantailak libreta arruntaren eta eperako libretaren aldean.

	Libreta arrunta	Eperako Aurrezkiak	Ongizate Aurrezpena
Interes handia	Ez	Bai	Bai
Eskuragarritasuna	Bai	Ez	Bai
Edozein kopuru sartzea	Bai	Ez	Bai

Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ek nahiago du ohiko Eperako Aurrezkiak, nahiz eta epearen eragozpena izan. Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberetara gozaten jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkiak. Eperako aurrezkiak bezelakoa, baina eperik gabe.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901- 333 444 telefonoan.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena.

USTEAK USTE

San Joan sua

Itxi begiak une batez eta saia zaitzte irudikatzen 1448ko Mondragoe izeneko herritxoa, 1.500 inguru bizilagunekin, batzuk harresiaren barruan biziz eta beste asko murrailak eskaintzen zuen segurtasunetik kanpo, baserrietan edo etxe multzoetan.

Nola biziko ziren mondragoetar haiek argindarrak barik, komunik gabe, etxean edateko urik ez zutela, ez dentistarik, ez okulistarik, ezta guk gaur egun ziurtzat jotzen ditugun gauza asko eta asko barik? Denboraren makinan sartzeko aukera izanez gero, sartuko ginateteke garai hartara hegan egiteko? Ziur naiz gutariko batek baino gehiagok egingo genukeela bidaia, baina itzultzeko txartelarekin.

Aurtengo San Joan bezperako sua berezia izango da, orain 550 urte izandako sutea ekarriko digulako gogora, garai hartako euskaldunen zentzugabekeria, krudelkeria eta basakeriaren lekuko isila. Aurtengoa festarako eta alaitasunerako motiboa izango al da! Ondo pasau!

Joxe Aranzabal



Historia berridatzi beharra

Jose Mari Velez de Menmdizabal

Justu orain, Arrasateko eliza nagusiaren birmoldaketarako lanak amaituak direnean, arrasatearrok ezagutu dugun tenpluari itxuraldaketa sakona ematen bederatzi bat urtez aritu ondoren, berrikuntzaren emaitza denon begi bistan dagoenean, laurhun eta berrogeita hamar urte betetzen dira egundoko sute batek eliza suntsituta utzi zuenetik. Kasualitatez gertatu bada ere, efemeridea oroitzeko ezin hobeto dator kigu San Joan Bataiatzailearen berrinaugurazioa, historian uztarturik geratuko baitira bi datak, aurtengo ekainaren 13a eta gure herriko kronikan suzko hizkiz grabatuta dugun 1448ko ekainaren 23 urruti hura.

Oso espazio txikia da orrialde honetakoa, zoritzarreko egun hartaraino eramango gintuzkeen bidea zernolako arantzez zegoen apainduta ikusi nahiko bagenu. Hala ere, murrizta den arren, nahikoa dugu, irakurleari adierazteko historia ez dela asmatu behar, batez ere fede oneko gizon-emakumeen artean. Eta horixe dut soil soilik egingo. Hori eta, jakina, orain dela bostehun urteko Arrasate (Mondragon) hark pairatu behar izan zuena azpimarratu, sufrimendurako pertsonen ahalmenak norainoko mailak hel ditzakeen nabarmenduz.

Mendeetako gorroto eta ikusiezinen jarioak, zurrubilo eroa bailitzan, harresiz barruko biztanleen baitan jo zuen bete-betean, heriotza, oinazea eta negarra nagusiaraziz. Bost axola, erasoaren sorburuan zein talde ipintzen dugun. Berdin dit, oinaztarrak ala ganboarrak izan ziren, San Joan bezperako oldarra Oñatiko mendietatik iritsi bazen ere (hots, ganboarrak). Erasotzaileek harresiz barruko laguntza ezinbestekoa

zuten mendekua burutu ahal izateko. Eta hain populazio mugatuan, zenbat traizio, zenbat erailketa herikideen arteko itsukeriarengatik! 1448an 1.500 biztanle bide zituen gure herriak. Berrogei urte beranduago horren heren bat bakarrik bizi zen Arrasaten. *“Quae notabilis et populosa oli fuerat”* dio erreketagertatu eta berehala, arrasatearrek eliza konpontzeko behar zituzten diruak ahalbidetuko zizkien indulgentzia-eskabi-deak. Calixto III.ak 1455eko maiatzaren 4an aldarrikatutako buldak erraztu zien bidea.

1448ko Arrasateko erreketagertatuak literatura itsaso zabalak sorrarazi ditu, gure artean eta baita kanpoan ere. Eta, zoritxarek maiz, ur nahasietan leiendak goia jo du, gertaera historikoak bere ingurura bildu duen dokumentazio ugaria ezertarako kontsultatu gabe. Ez naiz inoiz nekatuko, historiaz idazteko iturrietara jo behar dela baieztatzean, eta mingarria da frogatzea zenbat kalte egin den, batzuek —historiegile autoizendatuta gainera— euren asmamenaren emaitza zuzena islatzean, horrela aritzeagatik herriaren aurrean zernolako erantzukizuna hartzen duten ahaztuta.

Zorionez, ordea, 1448ko erreketaren inguruan gero eta dokumentazio aberatsagoa dugu. Horren azterketan (irakurketa zintzoan) datza, beraz, historia berridatzeko lehen gaia. Interpretazio okerretatik urruti.

“
1448an, 1.500 biztanle
zitzen gure herriak.
Berrogei urte beranduago,
herena.
”

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25




NEREA

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 43



**Bainujantzitan
espezialistak!**



Ondo pasatu jaietan!



Loramendi kirolak



Oihana

LORADENDA - APAINKETA



Arrasate Pasealekua, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 77 14 56



euskaraZ BAGARA!

ARRASATEKO ERDU-AEK
EUSKALTEGIA
EUSKARA IKASTAROAK UZTAILEAN

- Maila guztiak • EGA uztailean eta irailean • Iraileko errekeraketak.

Matrikula epea: ekainak 19

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA ERDU AEK EUSKALTEGIAN

Garibai kalea 14, 3. Tel.: 943 - 77 03 69

Beka sistema • Udalaren laguntzaz.

Zer beharko litzateke San Joanak hobetzeko?

San Joanetan jende askok alde egiten du herritik



Marcelino Mellado
29 urte
Zurgina

Gazteriarentzako gauzak falta dira. San Joan jai onak izateko guztientzako jaiak izan beharko lukete. Ez zaizkit jai hauek gustatzen.



Dabid Renda
17 urte
Ikaslea

Oso ongi daude jai hauek. Entzierroak oso gustuko ditut. San Joanetan herrian geldituko naiz, jaietz gozatzeko.



Ana Colas
34 urte
Langilea

Ni bergarrara naiz, baina Arrasate beti izan da parrandarako herri ona. San Joan jaiak ongi daude, baina asko galdu dute azken urteotan.



Amaia San Pedro
16 urte
Ikaslea

Nik gauzez bizitzen ditut jaiak, Aretxabaletatik etortzen naiz. Oso ongi daude, ez dut ezer faltan sentitzen.



Elena Egiguren
63 urte
Etxeko andrea

Niri jai hauek oso gustatzen zaizkit. Denetarik egoten da, ez dut ezer faltan sentitzen. Jaiak iristeko irrikitan nago.



Mikel Albistur
20 urte
Ikaslea

Jendearen partehartzea da jaietara falta zaiena. Baina bestela, oso ongi daude San Joanak. Nik gogoko ditut.



Martin Zugasti
52 urte
Langilea

San Joanak oso jai onak dira. Pena bakarra da jende asko kanpora joaten dela. Kirol gehiago prestatu beharko lukete.



Dolores Cid
74 urte
Erretiratua

Jaiak izugarri gustatzen zaizkit, baina lehengoak gehiago. Lehen gauza gehiago egiten zituzten: musika, erromeriak...

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A


lepaaa!!!

Ondo pasau jaietan

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

JUBAR

ATEAK. S.L.®



• BURDINAZKO ATEAK
• ETA PERTSIANAK
• AUTOMATISMOAK
• KONPONKETAK.
Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 10 20 • Fax: 943 - 79 08 17

**ETXOSTE
TABERNA**

Jaiak ondo igaro!

OLARTE, 22

19

ostirala

■ ZINEA

Su Majestad Mrs. Brown, Alai Zineman, 22:00etan.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

Jon Ruiz de Zaratek, *Serrajería* izeneko argazki bilduma dauka erakusgai Mondragon hotelean. Jonek Union Cerrajera erakutsiko digu.

■ MARGO ERAKUSKETA

Arrasate Margo Taldearen erakusketa zabalduko da, Harresi aretoan, 18:00etan.

■ XXV. URTEURRENA

Arrasate Musikalek XXV. urteurrenako kontzertu-omenaldia eskainiko du Amaia Antzokian. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

20

larunbata

■ ZINEA

Sombras de Sospecha, Alai Zineman, 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ SAN JOAN JAIK:

• Euskal Herriko Hegats txapelketa 10:00etatik aurrera, Musakolako kiroldegian.

• XIX. San Joan Pilota Saria jokatu da 10:30etatik aurrera Iturripeko pilotalekuan. A eta B mailako alebina, A eta B mailako haurrak, kadeteak eta gazteak arituko dira.

• Kaiolako Usakume Tiraketa, San Kristobaleko kanposantuan, Leintz elkarteak antolatuta. 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etaik 19:00etara.

• Aerobic erakustaldia, Musakolako kiroldegian. 12:00etan.

• Emakumeentzako II. Mus Txapelketa, Jokin Zaitegi plazan. 16:30etan.

• Umeen danborrada, Arrasate Musikaleko bandarekin. Danborrada Nafarroa Etorbidetik aterako da eta herriko plazan amaituko da. 19:00etan.

• Kondharian, Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako ikuskizuna, Amaia Antzokian, 22:30etan.

■ CORAZON DE ENCINA

Extremadura zentruak Iturbide egoitzak antolatu dituen udako ekitaldietan parte hartuko du. Kantu eta dantza saioa arratsaldeko 17:00etan izango da.

21

igandea

■ ZINEA

Sombras de Sospecha, Alai Zineman, 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ SAN JOANAK: HAUR DANTZARIEN EGUNA

• XVII. margo txapelketa. 9:00etatik 14:00etara. Sariak arratsaleko 18:00etan banatuko dira, Monterroren.

• Goitibehera txapelketan parte hartzeko izen ematea, Erguingo herri ikastetxean, 09:30etan.

• Dantzarien etorrera, 10:30etan, Nafarroa Etorbidean.

• Goitibeheren III. San Joan saria, Udalan, 11:00etan.

• Dantzarien kalejira, 11:45ean.

• Dantzarien saioa eta agurra, herriko plazan, 17:00etan.

• Txinparta taldearen dantzaldia, herriko plazan, 19:00etan.

23

asteartea

■ SAN JOAN BEZPERA

• Lore Gazteak taldeko txistularien diana, 15:00etan.

• Etxafleroak eta bonba japoniarrak, herriko plazan. 16:00etan.

• *Auskalo Taldearen* haur ikuskizuna, herriko plazan. 17:00etan.

• Salbea, San Joan Bautista parrokiaren. 19:30etan.

• *Errementari dantza*, Nafarroa Etorbidetik herriko plazaraino. 21:30etan.

• San Joan Sua, herriko plazan. 22:30etan.

• Nagusien danborrada, Nafarroa Etorbidetik herriko plazaraino, Eskoriatzako Musika Bandarekin. 23:00etan

• *Gaubela* taldearen dantzaldia, herriko plazan. 01:00etatik aurrera.

■ ERAKUSKETA ITURBIDEN

Iturbide egoitzako jubilatuek burututako lanen erakusketa irekiko da. Arratsaldeko 16:30etan bolo txapelketaren finala jokatu da. 18:00etan, *Kintanillaren* dantzaldia hasiko da.

22

astelehena

■ ZINEA

Sombras de Sospecha, Alai Zineman, 19:00 eta 21:30etan (ikuslearen eguna).

24

asteazkena

■ ZINEA

El Astronauta 17:00etan eta *El Gran Lebowski* Alai Zineman, 19:30 eta 22:00etan.

■ ZE BERO ATB

Eguerdiko 12:00etan, *Ze Bero* programa ATBk Sebero Altuben izango duen platoon.

■ SAN JOAN EGUNA:

- Arrasateko gaiteroen dia-na. 08:30etan.
- Entzierroa, Ferrerriastik irten eta Erdiko Kale eta Iturbide Egoitza ondoan egongo den zezen plazaraino. Ondoren, bigantxak, zezen plazan. 09:00etan
- Meza Nagusia, San Joan parrokian. 1:00etan.
- *Erraldoi eta Kilikien* kalejira. 11:00etan.
- Arrasate Musikalen bandaren kalejira. 11:30etan.
- Aureskua eta San Joan zortzikoa herriko plazan. Abaroan 80 urte baino gehiago dituztenen omenaldia. 12:00etan
- Arrasate Musikalen emanaldia, Monterron parkean. 13:00etan
- Arrasateko gaiteroen kalejira. 19:00etan.
- Bertsolariak. Anjel Mari Peñagarikano eta Maialen Lujanbioren saioa, Sebero Altube plazan. 19:15etan.
- Arkularien erakusketa, herriko plazan. 20:00etan.
- Dragoi jana, herriko plazan, 21:00etan. Txartelak, AED, AEK, Iturriotz eta Mendi tarbenan eros daitetzke, 1.000 pta.tan. 23:30etan *Maixa eta Ixiar* izango dira, herriko plazan.

- Su artifizialak Santa Barbatik, Arrasate erre zuteneko 550. urteurrena gogoratzeko. 00:00etatik aurrera.

■ SAN JOANAK ITURBIDEN

Bolo txapelketaren sari banaketa egingo da, goizeko 11:00etan. Sari banaketarekin batera, ohorezko aureskua dantzatuko da. Arratsaldeko 17:00etan Gasteizko unibertsitateko tunak izango dira Iturbiden.

25

osteguna

■ ZINEA

El Astronauta 17:00etan eta *El Gran Lebowski* Alai Zineman, 19:30 eta 22:00etan.

■ SAN JOANAK: HAURREN EGUNA

- Arrasateko gaiteroen kalejira. 08:30etan.
- Entzierroa, bezperako ibilbide berarekin. 09:00etan.
- Eguzki Laruren etorrera *Ze Bero* ATB programan. 12:00etan. Zaldibarko lantegiak eta umeen jolastokia irekiko dira.
- Eguzki Laruren herri bazkaria. 14:30etan, Zaldibarren.
- Eguzki Laru haurren jolastokia. 15:30etan.
- Squash txapelketa, Musakolako kiroldegian. 17:00etan. Txapelketak 26, 27 eta 28an jarraituko du.
- Eguzki Laru karaokea, Sebero Altuben. 18:00etan.
- *Boom-Beroak* ikuskizuna herriko plazan eta Gigante eta Kilikien kalejira. 19:00etan. Zezen jaialdia ere, ordu berean hasiko da.

- Leintz Bailarako Bertsolari Gazteen bertso saioa, Sebero Altuben. 19:15etan.
- *Mariachis Los Perez de Nochistlan* taldearen kalejira. 20:00etan.
- *Laiotz* taldearen dantzaldia, herriko plazan. Monterronen *Mariachis Los Perez de Nochistlan* taldearen emanaldia. 23:00etatik aurrera.

26

ostirala

■ SAN JOANAK:

- Entzierroa. 09:00etan.
- Bakailao lehiaketa, herriko plazan. 10:30etatik aurrera.
- *Kalejira Incansableaketa Izarren Zaparrada*, Seberoko ATBn platoon.
- Herriko trikitalarein kalejira. 12:30etan
- Arratsaldean zehar, saskibalo txapelketa jokatuko da Iturripen.
- *Trapu Zaharra* taldearen "La Averia" kale antzerkia. 19:30etan.
- *Bad F-Line, Dantzut* eta *Ke-Rule* taldeen rock jaialdia, Monterronen. 22:00etatik aurrera.
- Dantzaldia *Haitzama* taldearekin, herriko plazan. 22:30etatik aurrera.

■ PRESOEN EGUNA

Gestorak, Senideak eta HBK *Presoen eguna* antolatute. 18:30etan trikitalariak eta txikiteoa; 19:30etan kale agerraldia presoan 600 argazkirekin; 21:30etan herri afaria Seberon. Afarian Ainhoa Agirrealdegi eta Jon Sarasua bertsolariak arituko dira. Ondoren dantzaldia, Ines eta Naiara trikitalari mondragoetarrekin.

■ DIAPOSITIBA EMANALDIA

ASAk antolatute zuen Argazki rallyko diapositiba emanaldiak. Ekainaren 24tik 26ra bitartean, Sebero Altuben, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

■ ATBREN PROGRAMAZIOA

ATBren platoon, Sebero Altube plazan. 24tik 26ra, 14:30etan eta 20:30etan emango da.

■ KIROLDEGIA ITXITA

Larunbatean, ekainak 20, Musakolako igerilekuak itxita egongo dira hegats txapelketa jokatuko da eta.

ARAMAIO

● Beka deialdia

Aramaioko Udalak Eusko Ikaskuntzarekin egindako hitzarmenari esker, ikerlan bat egiteko lehiaketa deialdia egin du. Lehiaketaren irabazleak 225.000 ptako beka jasoko du. Bekadunak Aramaio herriaren kultura ekimenei buruzko lana egin beharko du, etnografia eta linguistikari garrantzia haundiagoa eman-gozaielarik.

BERGARA

① Turismo seinaleak

Begarako Udalak Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Kontsumo Sailari diru laguntza eskatu dio herrian turismo seinaleak jartzeko. Seinale hauek herriko monumentuetan eta interes turistikoa duten gunetan jarri nahi ditu udalak.

Deba Garaia



OÑATI

② Trukaketa programa

Oñatik Zacatecas herri mexikarrarekin duen anaitasun harremana estutu nahi du. Horretarako, trukaketa programa bat antolatu du Oñati-ko Udalak. Datorren ekainaren 24an, 14 eta 16 urte bitarteko lau gazte oñatiar Mexikora joango dira, eta hango bi hona.

ANTZUOLA

③ Olanar egokituko da


Enpresa Ekimenerako Zentrua Olanar etxean ezarriko da. Lanak laster hasiko dira. Mankomunitateari esker, langile talde batek ekingo dio lanari. Udalak konponketa lanetarako materiala erosi eta proiektua egingo duen arkitekto laguntzailea kontratatuko du.

TITARE

**Barruko arropa
Kortse denda
Bainujantziak**

*Jai zoriontsuak
izan!*

Olarte kalea, 6 • Tel.: 943 77 10 16 • ARRASATE



Haurtxoa

Jaioberrientzako
jantzi eta
osagarri guztiak:
aulkiak,
jostailuak,
sehaskak,...



SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!

Arrasate pasealekua, 4 • Tel.: 943 79 14 90 • ARRASATE

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK



UDA HONETARAKO

Aprobetxa ezazu ondo aurtengo uda, zeure aisialdiaren tarte bat hizkuntza bat ikasteari eskainiz; konturatu gabe ingelesa, frantsesa edo alemanera hitz egiteko gai izango zara.

Uztaila
egunean 2 ordu

Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago

HAUR ETA GAZTEAK
goizetan, 11etatik 1era

HELDUAK
arratsaldeetan, 4etatik 6etara

ALEMANERA
FRANTSESA
INGELES

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua, 14
Te. 943 71 60 00
OÑATI

Araba Etorbidea, 4
Tel. 943 71 20 55
ARRASATE

Ikasleek multimedia baliabideak eta mediaketa "dohainik" erabiltzeko aukera dute.

LORE



LURRINDEGIA

M A S A J E A

masaje terapeutikoa
kirol masajea
osteopatia
kinesiologia

K A B I N A

gorputz tratamendua
aurpegi tratamendua
drenaje linfatikoa
depilazio elektrikoa



Helena Rubinstein • Clarins • Biotherm • Ayer • Valmont



**esperientzia eta eragina
edertasunaren zerbitzura**

Solariuma

d u t x a r e k i n

O l a r t e , 1 0
A R R A S A T E
☎ 9 4 3 7 9 5 2 5 0



Herriko gazte talde berriak euskal presoek alde lan egingo du.

Euskal Presoak Euskal Herrira Gazte Ekimena

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko lan egingo duen ekimen berria aurkeztu zen astelehenean Arrasaten. Herriko zortzi gaztek osatu dute taldea, euskal presoek eta batez ere hamalau preso arrasatearrek pairatzen duten sakabanaketa egoerak bultzatuta. Taldeko ordezkariak esan zuten, "talde eragilea izan nahi dugu. Herriko beste gazte mugimenduak lan honetan sartu nahi ditugu".

Ekimen gaztearen helburuak zehatzak dira: presoak

etxera ekartzea, zigorraren hiru laurdenak bete dituztenak kaleratzea —Arrasateko bi presoaren kasua—, gaxorik daudenak ere etxera ekartzea —Pedro Guridi, adibidez— presoek giza eskubideak defendatzea.

Taldea opor ostean aurkeztuko zaio herriari. San Joanetan sinadurak bilduko dituzte, aurreko plataforma batek egindako lanari jarraitzea eman nahian. Orduan 3.000 sinadura jaso ziren. Gazte Ekimena beste horrenbeste lortu nahi ditu.



Udal gobernuak herritarren partaidetza oztopatu duela dio HBk.

HBko zinegotziak ez dira Salbera joango

Arrasateko HBk salatu egin du udal gobernuak, San Joanetako jaiak zapuztu dituelakoan. HBk kaleratutako idatzi batean azaltzen denez, aurreko urteetan jai herrikoiak lortzeko egindako ahaleginak ez du jarraipenik izan, udal gobernuak oztopatu egin duelako herritarren esku hartzea. Adibide gisa aipatu dute Kondekuan ez dela jai gunerik izango, 26an ez dela herri bazkaririk egingo, herriko kuadrilek ez dutela jaietan parte hartuko eta alkateak

ez duela Errementari dantza dantzatuko. Horrez gain, Santamasetan ere Santamas batzordea baztertu zela aipatu dute.

Egoera honen aurrean, HBko zinegotziek aurreratu dute ez dutela San Joan bezperako Salbean parte hartuko. "Loiti eta hirutariko gobernuaren egunero jarrera ikusirik, ez gaudere prest, geure presentziarekin eurak eta euren politika eta jarrera lejitimatze" adierazten dute idatzian.


DOTAKON
GAZTEENDAKO ERROPA
Otalora Lizentziatua kalea, 1
Tel.-Faxa: 943 77 16 92

Lurrindegia
ERTZ
Opariak
Ferrerias, 29 behea • Tel.: 943 79 08 70 • ARRASATE


Arbolapetan!
Olarte, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 27

ZUK NAHI
Taberna
Pintxo goxoak
giro onenean!
Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 943 79 79 26

LEBER
GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosien bitarteko aholkularitza.
- Area ezberdinen errefortzua-berreskurapena (hizkuntza, arazoiketa...)
- Eskolako edozein zailtasunetarako laguntza.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ordutegia: 15:30etatik 19:30etara.

Basabe industrialdea
ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 56 98

Xabier Zubizarreta epaituko dute

Xabier Zubizarreta, HBko zinegotzia eta Arrasateko alkate ohia, Bilboko auzitegian epaituko dute San Joan egunean. Epaiketa 1996ko Gudari egunean izandako istiluen ondorioz egingo da. Urte hartan, Zubizarreta alkate zela, Gudari eguneko kale agerraldia geldiarazi zuen Ertzaintzak. Ertzainen eta alkate ohiaren arteko eztabaidan, alkatea atxilotu eta ertzaindegira eraman zuten. Orduko gobernuak Zubizarretak jasandako tratua guztiz desegokia izan zela salatu zuen. Ertzainek berriz, Zubizarretak iraindu zituela esan zuten.

Arrasateko hainbat GKEk udalaren diru laguntzen banaketa salatu dute


Arrasateko Komite Internazionalistak, Harreman, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Manos Unidas eta Serso San Viator taldeek euren desadostasuna erakutsi dute Arrasateko Udalak lankidetzat proiektuentzat egin duen diru banaketarekin. Arrasateko taldeen esanetan, "udalak apurtu egin du bere kabuz, aurreko urteetako hitzarmena, hau da, diru laguntza Arrasateko GKEen proiektuen artean banatzea". Aurten, sei milioi banatuko ditu udalak, baina horietako lau Euskal Fondora joango dira. GKEentzat, "Euskal Fondoari inongo irizpiderik gabe eman zaio dirua. Proiektuak aurkezteko deialdirik egin gabe eta Arrasateko taldeen proiektuak ezagutu barik".



Udalak orain arteko hitzarmena apurtu duela salatu zuten GKEk.

Herriko taldeen artean diru laguntza banatzea eraginkorragoa dela aipatu zuten, batez ere: lankidetzat proiektuen kontrol zuzenagoa eraman daitekeelako, Arrasateren partehartzea handiago delako eta txirotutako

herrialdeenganako sentiberatasuna areagotzen delako. Bukatzeko, eta udalaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta, garapen proiektuetarako sei milioi pezeta jartzea eskasa iruditu zitzaizen Arrasateko taldeei.



SIKOL

*Uda bonetarako
aukerarik
zabalena
bainujantzietan*

Olarte, 31 • ARRASATE • Tel: 943 79 89 32

astea bi hitzetan

■ **Argazki rallya**

ASA taldeak antolatuta, argazki rallya egin zen joan den igandean herrian. Dirudenez, gero eta ohiartzun handiagoa du Arrasateko lehiaketa honek. Aurten beste edizioetan baino argazki-lari gehiago izan ziren, gutzira 25. Epaimahaia Soraluzeko Kontrargi taldeko egoitzan bilduko da, ekainaren 23an. Epaia, berriz, San Joan egunean emango dute jakitera ASA taldekoek.

■ **Kanpoko igerilekuak zabalik**

Udako denboraldia hasi da dagoeneko Musakolako kiroldegian. Asteburuan kanpoko igerilekuak zabaldu zituzten eta barrukoak itxi. Irailera bitartean, kanpoan busti behar. Ordutegia honako hau izango da: astelehenetik igan-

dera, goizeko 09:30etatik arratsaldeko 20:30ak arte. Osasun arazoak dituzten bazkideak Aretxabaletako barruko igerilekuetara joan daitezke. Arrasatekoak berriro ireki biartean.

■ **Mondragon Hotela inauguratu da**

Atzo inauguratu zen Mondragon hotela. Ostaua hartzeko, bikoitzak diren 22 logela, beste 7 bakarkakoak eta 2 suite eskaintzen ditu. Horrez gain, hotelak taberna, pub eta jantokia ditu. Ejekutiboetara zuzenduta, Interneten sartzeko edo bideo konferentziak egin ahal izateko instalazioak egokitu dituzte.

■ **Ajo de peces**

Izenburu bitxi horrekin, *Ajo de Peces*, Extremaduratik

etorritako antzerki taldearen antzezlanaren izen ikusgai asteburuan. Jende dexente hurbildu zen Amaia antzokira, musika, irudi eta dantzarekin osatutako ikuskizunaz gozatzera. Antzerkia *Corazon de Encina* zentru extremadurarrak antolatu zuen.

■ **Mahai ingurua Monterronen**

Anorexia eta bulimia gaitasunen zergatiak, sintomak eta osatzeko bideak azaldu zituzten zenbait adituk, astelehenen Monterronen egindako mahai inguruan. Jende dexente joan zen, gehienak emakumeak, Emakume Sailak antolatutako mahaingurura. Anorexiak eta bulimiak batik bat gaur egungo nerabeei, emakumei neurri handiagoan, eragiten die.



PARROKIAREN BEDEINKAPENA

Jose Maria Setien gotzainak San Joan Batailatzailearen parrokia zaharberriua bedeinkatu zuen larunbatean. Gotzainak arrasatearrek egindako lana goraiatu zuen. Eliz barrua jendez gainezka egon zen. Kanpoan berriz, Senideak taldeko lagun batzuek presoak gogoratu zituzten eta gutun bat eman zioten gotzainari.



“Nire aita oraintxe erretiratu da. Eta ni, funtsean, egoera berean nago. Baina argi dut luxozko erretiratu naizela. Nire arazoa da nola iritsiko naizena 65 urteetara, hori beste gai askoz ere korapilatsuagoa da. Arazoa da futbola oso eremu faltsua dela, eta apur bat menderatzen duzunean, joan beharra duzula. Jokalari, entrenatzaile eta kazetarietako hartuemana menderatzen duzunean, hasten zarenean ulertzen jokoan nondik nora doan, orduan esaten dizute: ‘jauna, bukatu da’”.

ANDONI ZUBIZARRETA

El País Semanal,
1998ko ekainaren 7an

AGUSTIN

Automobilaren karburazioa eta elektronika


Airtel

Urizarri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 73 58

Urizarre *Ondo pasan San Joan jaizak!*

SPORT

Olarte, 6 • Tfnoa: 943 79 27 78 • ARRASATE



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

Makala altxatzen San Joanetan

Garai batean soldadugaiak izaten ziren makala altxatzen zutenak San Joan bezperan. Bezperan, gauez eta izkutuan, joaten ziren makala lapurtzera eta hurrengo gauean herriko plazan altxatzen zuten.

Nahiz eta makala altxatzeko ohitura urte luzeetan galduta egon, orain dela hamabost bat urte berriz ekin zioten mondagoetarrek makala jasotzeari. Lagun artean egiten zen ekitaldia, orain dela bi urte herriko koadrilen lana bihurtu zen.

Aurten, ordea, udalak hartu du makala igotzeko lana eta *Parques y Jardines* enpresaren esku utzi du. Dirudieenez, koadriletako ordezkariak ez zaie egokia iruditzen euren lana makala altxatzera mugatzea. Aurten, beraz, ez dira eurak izango makala altxatzen.



Iaz herriko taldeen artean altxatu zuten Makala.

GORA BARIK, BEHERA

Baina makala altxatzea ez da lan erraza izaten. Iaz, txirrika sistema berri bat erabili zuten makala igotzeko. Orain dela bi urte ezin izan zioten zuhai-

tzari eutsi eta behera etorri zen. Iker Zabalo harrapatu zuen azpian eta peronea apurtu zuen. Gauzak horrela, ekitaldia ber-

tan behera geratu zen eta makala ez zen igo.


Ez zen izan hau, ordea, makala erori zen aldi baka-

rra. Mondragoetar zenbaitek gogoratzen duenez, hamaika urtean, beste bi aldiz ere erori da makala. Iaz 200 bat lagun bildu ziren herriko plazan zuhaitza igotzeko-sokei eustera. Aurten, teknikaren laguntzaz igoko omen dute zuhaitza, San Joan bezperan.

OHITURAK GALDUZ

Makalaren igoera tradizioz lagun artean egin izan den ekintza izan da. Izkutuan egin behar izaten zenean, parte hartzen zuten gazte guztien laguntza behar izaten zen horretarako. 1993 eta 94an jendeak ez zuenez parte hartu nahi izan, makala ez zen altxatu.

Mondragoetarrek orain dela bi urte berreskuratu zuten makala herriko taldeen artean altxatzeko ohitura. Aurten, ordea, ez dira eurak izango plazan eta enpresa pribatu batek altxatuko du. Makalarena ere, galtzen ari diren antzinako beste ohituretako bat izango da? Dena den, udalak altxatzea erabaki du eta 98ko San Joanetan makala izango da Mondragoen.



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz, 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 943 79 51 25

**Zure inbertsioak errentagarri egiteko,
utz ezazu estatuko lehenengo gestore
independienteak bidera zaitzan.**

<http://www.abasesores.es>

ABASESORES

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6
S. Lorentzo Industrialdea
Tel.: 943 - 76 54 35
20570 BERGARA

Los Perez Mariatxia, Mexikotik zuzenean

Ezin da ukatu "mexikanadak" gure artean aspalditxotik izan duen arrakasta. Gerraoste luzean oso entzunak ziren Jorge Negrete eta Miguel Aceves Mejiasen abestiak. Ohorea, gizonkeria, maitasuna, parranda... irtenbide egokia ziren kalean besterik ezin zenean esan edo kantatu.

Garaiak aldatuz joan dira, askatasuna ere iritsi zen, eta euskarak bere bidea egin zuen "mexikanadetan" ere. Berbenaz berbena dabilizan hainbat eta hainbat talde eta abeslari euskaraz hasi ziren abesten "mexikanadak" eta haien tankerako abestiak: Joselu Anaiak, Egan, Amaia Zubiria... Horiez gain, Iruñeko Cojon Prieto y los Huajalotes taldeak ere sekulako arrakasta izan zuen Mexikoko doinua zuten abestiak kantatuz.

Orain, berriz, jatorrizko mariatxi bat datorkigu San Joanetarako: Zacatecaso Los



Los Perez de Nochistlan mariatxia.

Perez de Nochistlan. Hamabi gizonak osatzen dute 1943an sortu zen talde hau. Betiko moduan, biolinak, hainbat neurritako gitarrak eta tronpetak dituzte lagun.

Ibilbide luzea du Los Perez de Nochistlan mariatxiak: *palenque* deiturikoetan jo izan dute, hau da, oilar burrukak

egiten diren tokietan, telebistan, irradian eta Mexikon zehar egiten diren jairik garrantzitsuenetan. Estatu Batuetan ere ibili izan dira, Californian eta Texasen, batez ere.

Mexikoko abeslaririk onenen konpainian ibili dira: Lola Beltran, Vicente Fernandez, Ma. de Lourdes eta Pedro

Vargas, besteak beste.

Dagoeneko hiru disko dituzte merkatuan: *Los Perez en vivo*, *Canto a mi tierra* eta *Canciones de ayer y hoy*. Ekainaren 19tik uztailaren 5era Europan ibiliko dira. Euskal Herriko hainbat herri-tan joko dute, udako jaietan batik bat.



Eusko
Ikaskuntza



ARAMAIOKO UDALETXEA

Beka Deialdia

Aramaio Udalak eta Eusko Ikaskuntzak beka deialdi bat egin dute Aramaio inguruko kultura arlo desberdinetan —etnografiari eta linguistikari garrantzirik handien emanez— ikerlan bat egiteko. Irabazleak hiru hilabeteko epea izango du lana egiteko eta euskaraz aurkeztu beharko du. Beka 225.000 pta.ko izango da.

Baldintzak

- Bekadungaiak historian edo filologian lizentziadunak izan beharko dira..
- Lanaren plana aurkeztu beharko dute.

Dokumentazioa

Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan aurkeztu behar da, lehenbailehen.

Eusko Ikaskuntza, Miramar Jauregia, 20007 Donostia
Tel.: 943 31 08 55

IRAGARKIA

Udalbatzak, 1998ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, hainbat material ofimatiko eta informatiko enkante bidez saltzeko klausula ekonomiko administratiboan orria onartu zuen.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Proposamenak aurkezteko epea: uztailaren 3an, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

S A N J O A N J A I Z O R I O N T S U A K !



ZABALETA

LYRRINDEGIA / OPARIAK



Maisu Arano, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 32

Udalekuak 98 KANPOAN



* ANDALUZIAN
(14-16 urte)
uztailaren 6tik 18ra

* UDALEKUAK GARAION
(8-10 urte)
uztailaren 14tik 24ra

* ASTEBETE KOSTALDEAN
(Orioko kanpianean)
(12-14 urte)
uztailaren 6tik 12ra

* NAFARROAN
(BEINTZA - LABAIEN)
(12-14 urte)
uztailaren 14tik 24ra

* UDALEKUAK GARAION
(10-12 urte)
uztailaren 1etik 10era



Berri gehiagorako deitu
943 79 54 46 telefonora.

TELAETXE S.A.

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK


Zetak, eskuoihalak (toailak), izarak, eta abar.



► Somierrak (artikulatuak eta elektrikoak ere bai), nordikoak eta LATEXeko KOLTXOIAK preziorik onenean!



► Etxea apaintzeko era guztietako ehun-gaiak, estoreak...



► Sukalderako eta egongelarako errezelak (kortinak) neurrira egiten ditugu.



► Era guztietako tapizak.

ORDUTEGIA

Astelehenetik zapatara: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)

Telefonoak: 943 76 39 40 / 39 41 • Faxa: 943 76 56 38 • BERGARA

Ondo pasau San Joanetan!



Mikel Garate

1448 KO EKAINA, SAN JUAN GAUA. BANDOEN ARTEKO BORROKA BETE BETEAN ARRASATE GOITIK BEHERA ERRETZEN DA.

Mondragoe sutan

1 448. urteko ekaina hasiera da Mondragoen. Erdi Aroko azken urteak dira, goseteak eta miseria daude nonahi.

Petra eta Graxi neska gazte mondragoetarrak txikitatik dira lagunak, baina orain elkar ikusteko izkutuan ibili beharra daukate.

Etxean iturrira ur bila joan direla esan dute, horrela betiko lagunarekin egon ahal izateko. Gurasoak eta anaiak Petra eta Graxi batera daude-

1448. urteko San Joan gaua Arrasatek bere historian bizi izan duen unerik gogorrenetarikoa da. Su eman zioten herriari eta errautsetan gelditu zen, San Joan gauak gure artean inoiz ezagutu duen surik handiengan. Euskal Herriko bi leinu nagusien arteko azken gudua borrokatu zen Mondragoen egun hartan: ganboatarren eta oñaztarren arteko lehia. Herria ezerezean gelditu zen, deuseztua.

la jakinez gero, sutan jarriko lurrateke. Baina neska gazteak herria banatzen duten liskar eta gorrotoen gainetik daude.

Haien familiek ezin dute elkar ikusi. Petraren etxean

guraiatarren leinuko jarraitzaileak dira, Mondragoeko gehienak bezalaxe. Graxirenean, aldiz, Bañez jaunari laguntzen diote.

Bañeztarrak eta guraiata-

rrak herria zuzentzen duten bi familiak dira. Botere guztia bi hauen eskuetan dago. Arrasate herri bitxia da. Orokorrean jauntxo bakarra izaten da herriko agintearen jabe; baina geurean bitan zatitua dago. Herriak bi alkate, bi eritexte... ditu.

BITAN BANATUTAKO HERRIA

Petra eta Graxi iturri alboan elkartu direnean, besarkada goxo eta luze batean bildu dira. Bi neskatxak urduri daude. Petrak beldur dela esaten dio

BAINA ZUREZKO ETXE ZAHARREK BIZKOR
SU HARTZEN DUTE.

“Arrasaten Bañez eta Guraia familiak ziren nagusi. Bi alkate, bi eritetxe... zeuden. Eta familia bakoitzak Euskal Herriko leinu nagusiei laguntzen zien: oñaztarrei eta ganboatarrrei”

“Ganboatarrrek Mondragoeri su ematea erabaki zuten. Asmoa ez omen zen herria erretzea, barruan zeuden guztiak hil nahi zituzten. Herria errautsetan gelditu zen, erabat kiskalita”



EUSTEA EZINEZKOA
DUGU, BUTROEKO JAUNA!
HERRI OSOA SUTAN DAGO!
GIZONAK BEREN ARMA-
DURETAN KISKAILTZEN DIRA
ETA KEAK ITO
EGITEN GAITU!

Graxiri. Atzo gauean anaiei hitz egiten entzun zien. Totelka, elkarrizketa kontatzen dio lagunari: “Graxi gure lurraldea bi leinu nagusitan banatua dagoela badakizu ezta? Urteak daramatzagu leinuen arteko guduetan, jauntxoek botere nahia dela eta: oñaztarrek alde batetik eta ganboatarrak bestetik. Gure herria ere bitan banatua dago. Guraia-tarrak, nire etxean moduan, oñaztarren jarraitzaileak dira, bañeztarrak aldiz, zeurean bezala, ganboatarren jarraitzaile. Bart anaiek zioten borrokan hasteko garaia dela herrian. Beldur naiz Graxi”.

Bi neskek hitz egiten jarraitzen duten bitartean, handik metro gutxira jauntxoek bilerara bat egiten ari dira.

Mondragoeko bañeztarrak On Pedro Velez Gebara Oñatikoko kondearekin daude, Ganboatarren buruzagiarekin.

Oñatikoko kondeak bereak ditu Mondragoeko Hegoaldeko lur gehienak. Baina duen botere egarria handia da: dena nahi du beretzat. Horregatik, ganboatarren buruzagiak laguntza eskaini die bañeztarrei, nahi dutenean Guraiatarrak, hau da: berak gorroto dituen Oñaztarren jarraitzaileak, deusezteko.

Petraren etxeok ere ez daude geldi. Aita eta anaiak Guraia etxeok jaunarekin elkartu dira. Badakite herriko giroa aztoratua dabilela, eta Bizkaiari laguntza eskatzea erabaki dute. Horrela bada; mezulari bat bidali dute Butroe eta Muxikako jaunarengana. Bera da oñaztarren buruzagia, eta mondragoetarrek badakite ganboatarren aurkako lehiaren indarrez borrokatuko duela. Izan ere, leinu garrantzitsuenen boterea dago jokoan.

HASI DA ISTILUA

Jauntxoek ez dute gehiago itxaron nahi. Ekainaren 11n, Butroe eta Muxikako Gonzalez jauna Mondragoera iristen da, Arrasate bere egin eta ganboatarren jarraitzaileak kanpora botatzeko asmoarekin.

Jakina! Honen berri izan bezain laster, Oñatikoko kondea eta ganboatarren jarraitzaileak Mondragoeko harresietan bildu dira. Borroka hamaika egunez luzatu da. Petra eta Graxi ikaraturik daude.

SU EMAN BEHAR ZAIO

Ganboatarrak nekatuta daude. 11 egun daramate borrokan, baina gutxi da aurreratutakoa. Oñatikoko kondeak San Kristobaleko ermitara deitu die bere jarraitzaileei. Han hartzen dute erabakia: Sua eman behar zaio herriari, barruan dauden guztiak.

Asmoa ez omen da herria erretzea, barruan daudenak hiltzea baizik.

San Joan gaueko sutarik ikaragarriena izan da, 1448ko ekainaren 23ko hau. Inoiz horrelakorik ikusi gabe zegoen herria.

Mondragoeko etxe eta eraikin gehienak zurezkoak dira eta minutu gutxitan dena kiskalita geratzen da. Herri guztia, harrizko bi eraikin izan ezik, errautsetan gelditzen da. Petri eta Graxi iturri alboan elkartu dira, azkenengo aldiz.

Bateren batzuk erreketatik alde egitea lortu dute, baina oñaztarrak Arrabalan eta Maalako inguruetan daude zain. Horra iristen direnean, denak hiltzen dituzte.

Bortitza izan da San Joan gaua. Herrian ez da ezer geratzen. Hau izan da bi leinu nagusien, oñaztarren eta gan-



Martin Bañez eta Juan Ibañez de Barrutiaren hilketa gogoratzen duen oroitarría Garagartzan.

boatarren, arteko azken borroka. Hemen amaituko dira banderizoen arteko guduak. Mondragoek larrutik ordaindu behar izan zuen jauntxoen arteko lehia.

EPAIMAHIA

Sarraski honek eragin handia izan du penintsula osoan. Ganboatarrei auzia egin behar zaie, eta horretarako erregeak berak parte hartzen du epai-leak izendatzen.

Aretxabaletan egiten da epaia eta Tolosan jakinaraziko da auzia. Gogorra izan da: Oñatiko kondeak eta beste 400 gizonak, heriotza zigorrak jaso zituzten. Baina epaiak ez ziren bete. Azkenean, denborak eta diruak barkamena ekarri zuten. Oñatiko kondeak Arrasate herritarren esku utzi zuen, 300.000 marabediren truke.

MENDEKUA

San Joan gaueko sutea ez da Mondragoen eta inguruetan urteetan ahaztu, ez eta barka-

*“Oñetako lur hau
jabiltikara
lau aragiok berau
bezala
Martin Bañez
Ibarretan il dala
artuko dot esku
batean gezia
bestean suzi
iraxegia
erreko dot Aramaio
guztia”*

Santxa de Ozaeta, 1464ko maiatza

tu ere. Sendien arteko gorrotoak eta lehiak jarraitu egiten du, eta batzuk mendeku egarritz dabilta.

1464. urtean Martin Bañez eta Juan Ibañez de Barrutia, ganboatarrak, Mondragoetik Ibarretan duten burdinolarantz doaz. Baina ez dute ibilbidea amaituko. Aramaioko bost oñaztar zain dituzte, helburu batekin: Mondragoeko sutearen errudunen artean zeuden Martin eta Juan hiltzea.

Gaur egun, sutearen historiatic gelditzen zaigun aztarna bakarra bi ganboatar hauen heriotza gogoratzen duen gurutzek dira. Garagartza auzoan daude. Hitz hauek irakur daitezke gurutzetean.

*Oñetako lur hau jabiltikara
lau aragiok berau bezala
Martin Bañez Ibarretan il dala
artuko dot esku batean gezia
bestean suzi iraxegia
erreko dot Aramaio guztia*

*Santxa de Ozaeta,
1464ko maiatza.*

Naiara Gorroño ■


Kondharian, ikuskizun zoragarria

San Joan hauetan euskal kulturak azken urte hauetan sortu duen ikuskizunik ederren eta originaletako bat ikusteko parada izango dugu: Juan Antonio Urbeltzen *Kondharian*.

Juan Antonio Urbeltzek urte luzeak igaro ditu mitologia aztertzen. Bere azken liburua —*Bailar el Caos* ed. Pamiela (1994)— ikerkuntza horien emaitza da. Baita Arrasatera datorren ikuskizun hau ere.

Kondharian ikuskizunak dantza eta musika tradizionalak uztartzen ditu. Koldo Amestoy ipuin kontalariak kontazen ditu zapi ipuin hauek: *Bi idi, bi lapur; Zazpi izarrak; Artzaina eta zazpi ahuntzak; Txorien errege txikia; Irulea eta itzainaren ezteiak; Hiru ehiztariak eta Hartz Handia; Maria eta Hartzandi; eta Hartzaz hezitzaileak*. Horien inguruan egokitu dira koreografiak eta sortu dira egoerak.

Urbeltzek berak azaltzen duen moduan, "*Kondharian* mitoaren hondarra den ipuin



Koldo Amestoy izango da kontalaria.

herrikoiairen eta erritu hondarra den dantza tradizionalaren arteko elkarrizketatik sortu da".

Proposamen berria da, dantza herrikoiairen antzerki mota bati begira egin dena eta

bizia ematen dioten adierazpen guztiak (hitza, musika, dantza, oreka, malabar jokoa, jantzien kolorea, mozorroak eta txotxongiloak) biltzen dituen.

Soinua ere ipuinen arabera sortu da, zuzeneko eta grabatutako musika nahasiz. Bera bihurtu da koreografiaren oinarri. Musika tresna asko erabiltzen dira ikuskizun honetan: txistua, xirula, dultzaina, akordeoia, biolina, kontrabaxua, tronpeta eta perkusioa.

Koreografiari dagokionez, oso aberatsa dela esan behar. Izan ere, Pirinioetako inauteriak eta Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzak uztartzen baititu, habanera, perikoi edo Balkanetako horo ospetsuekin batera.

Jende multzo handia bildu du Urbeltzek *Kondharian*: 50 dantzari, 10 musikari, narratzailea bera, bi aktore eta bi malabarista.

Juan Antonio Urbeltzen *Zortziko* gogoangarri hura, kiroldegian eman zena, gozatu zenutenok ezezik, Koldo Amestoyren lana gustuko duzenok eta ikuskizun original eta distiratsua ikusteko prest zaudetenak ere ikusi beharrekoa duzue *Kondharian*. Merezki du.

Jai Zale

T A B E R N A

- Bokatak
- Pintxoak
- Infusio naturalak
eta...

MARTXA
TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37
Tel.: 943 79 67 92

La CEPA RIOJANA

Jatetxea/Taberna

Berezitasunak:
patatak pipar biziakin
Untxia saltsan eta denetariko frijituak

Ferrerias, 19 • Tel.: 943 79 20 02 • ARRASATE




- ITURGINTZA OROKORRA •
- BAINU ALTZARIAK •
- MANTENIMENDUA •
- BEROGAILUAK •
- AIRE GIROTUA •
- GASA •

**Ondo ibili
San Joanetan**

ERAKUSKETA:

Gipuzkoa Etorbidea 39, behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 01 85 Mugikorra: 919 41 44 44

OPEL 





*Ondo pasatu
jaixetan!*

**Eta oporrak
laster
datozenez,
prestatu
zure autoa!**

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE
Tel.: 943 79 05 86

TAKOLO AUTOAK



Fresh


makilaje bilduma berria

kontrakoak erakarri egiten dira



Astearteetan prezio bereziak gizonezkoentzat

Eguerdietan ere zabalik!



6
urte bete ditugu zure zerbitzura



ILEAPAINDEGIA



24 urtetik beherakoentzat ZIRT-ZART GAZTE TXARTELA, astelehenetik ostegunera

Corbea kalea 2.zkia, (Eroski handiaren parean)

Gorde zure txanda

010 77 00 11 telefonon

Goitibehera originalaren saria

DANEL GOIKOLEA

*“Beste batzuk abiadurazaleak dira
Guk nahiago izaten dugu diseinua landu”*

— **Iaz arrain batean jaitsi zineten Udalatik. Eta aurreten?**

— Sorpresa izango da, bestela faktore hori galtzen da eta irabazteko aukera gutxiago daukagu.

— **Zergatik goitibehera apaindu beharra?**

— Ez goazenez irabaztera, baizik eta ondo pasatzera diseinu bereziak egiten hartzen dugu parte. Gainera, horretan ari garenez, atseginez egiten dugu. Beste batzuk abiadurazaleak dira. Guk nahiago izaten dugu diseinua landu.

— **Modarik sortu duzuela uste duzu?**

— Guk hori nahiko genuke, baina ez da jende asko animatzen. Hala ere, iazko irabazleek marrazo bat egin dute. Nik bi modalitate bereiztuko nituzke txapelketan eta bi sariak parekatu.

— **Erraza da horrelako goitibeherekin jaistea?**

— Lehenengo urtean dragoia eraman genuen eta oso korrikalari ona izan arren, bihurguneak nahiko gaizki hartzen zituen. Iaz polikiago jaistea erabaki genuen eta arrain polikiago joan zen.

— **Aurretik probatzen dituzue?**

— Ez, egunean bertan probatzen dira. Normalean ez da probatezko aukerarik izaten. Gainera, arrisku-tsua da autoak datozela aritzea. Autopera joan zaitezke.

— **Zein da bihurgunerik arrisku-tsuen?**

— Monjetako kurba da arrisku-tsuen; agian otoi egiten ez dutelako izango da edo...



ATLETISMOA Euskadi txapeldun



Ibai Jurado eta Oskar Gavilan Gasteizen izan ziren Euskal selekzioarekin aste-buruan. Euskal taldeak Espainiako erkidegoen arteko txapelketa irabazi zuen.

Ibaik brontzea eskuratu zuen 100 m.ko lasterketan. 4x100 m.ko lasterketan ere aritu zen Jurado eta Euskal selekzioak urrea lortu zuen. Oskar Gavilan, bestalde, disko jaurtiketa proban 37,98 m.ko jaurtiketa lortu zuen eta nahiz eta bere errekorra baino jaurtiketa txikiagoa egin, brontzea lortu zuen. Gavilan Mallorcara abiatuko da asteburuan, Espainiako erkidegoen arteko txapelketa jokatzera.

IGERIKETA Ane Lopez garaile



Hondartzetako Nazioarteko txapelketan izan dira Ane Lopez, Eneritz Jauregi eta Esther Gomez arrasatearrak. Anek garaipena lortu zuen Donostian lehenengo eta Huescan gero. Eneritzek, berriz, bigarren tokia eskuratu zuen bere mailan. Olaia Murua, ostera, 3. tokian gelditu zen. Senior mailan, Esther Gomez bigarren izan zen. Larunbatean, bestalde, Euskal Herriko hegats txapelketa jokatu da Musakolako kiroldegian. Euskal taldeez gain, Tafalla, Iruñea eta Zaragozako taldeek hartuko dute parte, nahiz eta hauek txapelketatik kanpo arituko diren. Arrasateko taldean izango dira Iban Sanchez, Ander Korquera, Alayn Gortazar, Olaia Murua, Esther Gomez, Ane

Lopez, Eneritz Jauregi, Jone Etxebarria eta Izadi Mondragon. 50, 100, 200, 400, 800 eta 1.500 m.ko lasterketak jokatuko dituzte. Proba hauetaz gain, erreleboak ere jokatuko dira. Txapelketa goizeko 10:00etan hasiko da.

GIMNASIA ERRITMIKOA Maite Albes txapeldun



Arrasateko gimnasia erritmikoko taldeak arrakasta berri bat lortu zuen joan den asteburuan. Maite Albes mondra-goetarrak, Euskal Herriko gimnasia erritmiko txapelketa irabazi du. Joan den larunbatean, ekainak 14, Hernanin jokatuz txapelketan aritu zen Maite, gazte eta amateur mailan. Maitek, zinta, uztaila eta sokaren probetan hartu zuen parte eta txapeldun geratu.

TXIRRINDULARITZA Zortetik ez



Ez dute zorte handirik izan Fagor taldeko txirrindulariek asteburu honetan. Fagorreko gazteak, Legazpin eta Seguran izan ziren. Legazpin Euskal Herriko txapelketan aritu ziren. Atxak eta Velascok bakarrik bukatu zuten proba. Garaipena Perez bizkaitarrak eskuratu zuen. Bigarren tokia ere Mendia bere taldekidearentzat izan zen.

Seguran, berriz, Ivan Velasco 20. izan zen eta bere atzetik sartu ziren Almaraz, Bengoa eta Galan. Ostiraletik Gipuzkoako IX. itzulian ari dira Fagor taldeko gazteak. Azpeitian hasi eta Andoainen bukatuko da itzulia.



Garaipena golpe eta guzti

Finala amaitzeaz zegoela, sekulako jokaldia ikusi ahal izan zuten ikusleek. Pegaso 3000 taldeko atezainak airez zetorren baloi bat gelditzera atera zen; Lontxoko Pacok baloia harrapatzeko salto egin zuen eta elkar jo zuten bi jokalariek. Azkenean, sustoa baino ez zen izan, baina biek astelehenean ere mina zutela aitortu ziguten.

Iturripeko finala

Kiroldegi barruan jokatu zen Uribeko finala joan den larunbatean. P3000 eta Lontxo Taberna izan ziren aurrez aurre, txapelketa eskuratu nahian.

Jokalari onena

Txapeldunak, azpitxapeldunak eta beste bi taldeez gain, Pegaso 3000 taldeko Aritz Arabiourruatiak ere sari berezia jaso zuen, bera izan eta, finaleko jokalaririk onena.



Mondra gaztea garaile

Gazte mailako mondragoetarrek, Orion lortu zuten garaikurra erakutsi nahi izan ziguten. Arrasatearrak, Gipuzkoako lehenengo gelditzea lortu zuten. Zorionak beraz, Mondrako gazteei!

P3000 txapeldun


2 eta 1 irabazi zuen P3000 taldeak, Lontxo Tabernaren aurka jokaturako Uribeko finalean. Larunbatekoa ez zen hala holako finala izan. Bi taldeek partidako lehenengo 27 minutuetan ezin izan zuten golik sartu. Baina lehenengo zatia bukatu aurretik, Pegaso taldearen aldeko penaltia etorri zen. Tolak estreinatu zuen markagailua 28. minutuan. 30.ean berdinketa lortu zuen Lontxo Tabernak eta handik gutxira, Bergaretxek garaipeneko gola lortu zuen. Azkenean, 2 eta 1 markagailuan eta garaipenaren garaikurra Pegasorentzat.

Dribling taldea hirugarren

Hirugarren eta laugarren tokiak jokatu zituzten Dribling eta Komando Alpagat taldeek. Dribling lehen zatiaren bukaeran 3 eta 1 aurreratu zen markagailuan. Hala ere, bigarren zatian gauzak korapilatu egin zitzaizkion eta Komando Alpagatekoek bi gol lortu zituzten. Azken momentuan berdinketa lortu ahal izan zuten, baina Driblinge ez zuen amore eman eta 4 eta 3 irabazi zuen partida. Amaieran, hirugarren toki Driblingentzat izan zen eta laugarrena, berriz, Komando Alpagatentzat.



ZORIONAK *arrasate!*



futbola • saskibaloia • mendia • atletismoa • etab...

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • 20500 ARRASATE



ARRASATE
KIROLAK

Jon Aperribai lehenengo arrasatearra

LIX. San Joan-Eroski Sari Nagusia jokatu zen joan den igandean. Lehenengo arrasatearraren saria Olarra taldean ari den Jon Aperribaik eskuratu zuen. Jon denboraldi oso ona egiten ari da. Horregatik, akaso, mondragoetar honek sasoi onean dagoela erakutsi behar zuen bere herrian. Baina ez zen hori izan arrasatearren lorpen bakarra. Born Jay taldeko Jon Del Riok tarteko helmugan saria eskuratu zuen eta.

Orain arte ekainaren 25ean egin izan den txirindulari proba honek arrakasta izuga-



Jon Aperribai hamaseigarren iritsi zen.

ria izan zuen. 160 txirindularik hartu zuten parte Gari-bai kaletik atera zen San Joanetako txirindulari lasterketan. Olarra taldeko Pello Arreitunandiak irabazi zuen. Mutrikuarrak Gatzagan ihes egin zuen eta denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen.

Olarra-Erkoreka taldeak lan oso ona egin zuen. Hala ere, taldeko saria Kaikuk eskuratu zuen. Saul Barrigon (Kaiku) bigarren eta Ricardo Serrano (Kaiku) hirugarren izan ziren helmugan. Barrigonek gainera, mendiko saria eskuratu zuen.

J.I. Mata



Arkupe Joma txapeldun futbito txapelketan

Arkupe Joma taldeak, San Andres eta Santa Marinako I. futbito txapelketa irabazi du. Aurrebenjaminetan jokatu duen talde honek, 3 eta 1 irabazi zion Indo Takolo taldeari. Lehenengo aldiz jokatzen den futbito txapelketa honetan, zazpi talde aritu ziren aurrebenjaminetan. Finala joan den larunbatean jokatu zen, Musakolako kiroldegian.

KARLOS
Bitxitegia

Biteri kalea, 13
ARRASATE
Tel.: 943 79 34 26

FELI
Janaridenda

JAI ZORIONTSUAK
IZAN!!

Okendo, 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 48 85

LONTXO
TABERNA

Olarte, 12
ARRASATE
Tel.: 943 77 14 91

Aupa San Joanak!

ALDAPE
Taberna

Espezialitatea:
menua - karta

Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE

Marivi
LORADENDA

Alfonso X jakintsua 5
(Grupo San Juanen) • ARRASATE
Tel.: 943 79 15 59 / 943 78 81 54

Koroak, ezkontzarako edo momentu berezietarako lore sortak.

Ehune

Apainketa

*Etxe Txukuna
Txoko Kuttuna*



Otalora, 21

Tel: 943 77 11 48

ARRASATE



SABURDI

Harategia - Urdaitegia

*Saburdi Harategiak
San Joan jai zoriontsuak opa dizkie
bere bezero guztiei!*

Sebero Altube, 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 86 15

ALTZARIAK

- Leiho termoakustikoak
- Ateak

UGARTE

AROSZTEGIA

APAINKETA

- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1
(Gasolindegiaren parean)
BERGARA
Telefonoa eta Faxa: 943 76 54 91

ERREGINAK BEZALA

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentruko emakumeek, Europako zenbait bazter ezagutu dituzte, urteroko ohiturari eutsiz. Aurten

Italian, Alemanian eta Austrian izan dira argazkiko 29 emakumeak. Sisi enperatriza eta Luis II.aren jauregi eta gazteluak

bisitatu dituzte. Argazkian, Bavierako Luis II.ak Alemaniako Chiensee lakuaren inguruan eraikitako jauregia.



DANBORRADA KO BANDERADUNAK

Nagusien danborradan lau neskatxa hauek eramango dituzte banderak: Jessica Davilak SUDCekeo bandera, Naiara Korkuerak Arrasatekoa, Jaione Laskurainek ikurriña eta Noemi Arrocha amazona izango da.

Umeen danborradan, Josune Sagastak SUDCekeo bandera eramango du, Unai Errasti generala izango da, Maitane Roak ikurriña eramango du eta Maria Alvarezek Arrasateko bandera.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-04
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

Ondo pasa jaiak!

TOKION

Erlojuak:
Seiko • Citizen • Lotus • Casio

• Kalkulagailuak •
• walkmanak •
Urrea • Zilarra • Eta abar

Erdiko Kale, 7 • Tel.: 943 79 91 64 •
ARRASATE

Zorionak!
arrasate!

LOS VAQUEROS
Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55

LOS TEJANOS
Hiper-Eroski • 943 79 80 36

San Joanetan, bakerotan
primeran pasetako!!

Jaiak ondo igaro!!

BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5
ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85

DISCO-BAR

GURELEK

**Disco-Bar Gurelekuk
SAN JOAN jai zoriontsuak
oputzen dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren, 10 • Tel.: 943 75 20 91 // Baltegieta, 6 • Tel.: 943 75 13 99
SORALUZE

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte, 2
Tel.: 943 79 15 32

AUPA
SAN JOANAK!

A R R A S A T E



HORI DA SASOIA, HORI!

Sasoian daude gure nagusiak. Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, eskualdeko erretiratuek hainbat kirolean hartu zuten parte joan den ostiralean, baita ondo ibili ere. Zazpigarren edizio hau nahiko arrakastatsua izan zen, guztira 320 lagun bildu baitziren. Badminton, hockey, arku tiraketa, aerobic, eta beste hainbat kirol egin zituzten.

Goenkaleko Don Luis eta zoritxarreko Gina laguntxo batekin etorri ziren Erguin eskolara larunbatean. Sudurra gorritz margotu, eta a ze nolako barre algarak sortarazi zituzten! Pailazoez gain, gazteluak, erakusketak eta beste hainbat ekintza izan ziren Erguin eskolan, ikasturte amaierako festan.



FESTA ERGUINGO HERRI ESKOLAN

**SAN JOANAK
ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE

Takoi

ZAPATA KONPONKETAK
GILTZEN KOPIAK

Kalealdea, 2 behe (Larreako etxeak)
Tel.: 943 79 84 95

GoiHata S.L.

「日本語」

Japoniera, ingelesa, euskara, eta hizkuntza guztiak itzultzen ditugu

Alfonso X Jakintsua, 1 ARRASATE
Tel.: 943 - 79 25 75
Faxa: 943 - 77 13 90

MURUAMENDIARAZ

Gozotegia
Jai goxo, goxoak izateko

Erdiko kale, 28 • ARRASATE • Tel.: 943 79 15 34

Epelde, argazkigintzaren zurrunbiloan

Hogei urte zituela, Lasonean hasi zen lanean Juan Migel Epelde, bere osabarekin. Hasi bezain laster, Donostiara joan zen, laboratorio batera ikastera.

Osabarekin zazpi bat urte egin eta gero —“hantxe ikasi nuen argazkigintzari buruz nekien guztia”, dio berak—, bere denda ireki zuen Iturriotz kalean. Ordurako andragai zuen, Mertxe Juldain, eta biak hasi ziren denda berrian, txakur txikirik gabe ia. Eske-rrak zozketa batean automob-ibil bat tokatu zitzaizela eta, hura salduta, hainbat zor estali ahal izan zituztela. Garai hartan, lehia zela eta, osabarekiko harremanak gaiztotu egin ziren.

Urte hauetan batez ere ezteiak eta Lehen Jaunartze-ak landu ditu. Ezkonberri askoren ezteietan izan da, bai-ta haien seme-alaben ezkon-tzetan ere eta susmoa du baten bateren kasuan biloben ezteie-tan ere izan dela.

Gauzak asko aldatu dira hasiera hartatik. Lehen zuri-beltzean egiten zena, gaur



Juan Migel Epelde, Antxon semea eta Mertxe Juldain, Portaloiko argazki denda.

egun koloretan egiten da. Ezteietan *parkea* deitzen dute-na lantzen da batik bat gaur, elizara joan aurretik parke batean hartzen diren argazkiak, alegia. Argazkilarien arteko lehia ere areagotu egin da. Bera hasi zenean bi denda bai-no ez zeuden Arrasaten. Gaur

egun, berriz, zazpi: “izugarria da gure artean dagoen konpe- tentzia: %8 eta %10eko mar- jenekin gabiltza”.

Hala ere, ondo doazkie gauzak Epeldetarrei. Gaur egun bi denda dauzkate: Portaloi ondoan Antxon semea dabil. Honek errebelatua eta argaz-

kigintzarako materiala lantzen du. Baita bideoa ere. Goiko denda, oster, argazkigintza profesionala batez ere.

Argazkigintza astinduko duten aldaketa handiak dato- zela ikusten du, baina horrek ez du estutzen, erretiroa hur- bil ikusten du eta.

Elena ESPEZIALITATEA:
NEURRI HANDIAK (48-64)

Bizkaia Etorbidea, 1 • Tel.: 943 77 14 24

BRANKA
TABERNA

San Joanetan girorik onena!

Zarugalde, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 21 13

Aupa
San Joanak!
Aupa
Arrasate!

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

SAN JOANETAKO MENUA



Kafetegiko Menua-2.500 pta.

Frijitu Aukeratuak

Isaski Zuhua

Idi Satehatsarhoa Pihillo Piperekin

Limoiako Furrupakia Lanpainaaz

Etzeko ogia eta ardoa barne

Jateko Menua-3.500 pta.

Legatz Budina

Bildots Menestra

Labean egindako Isasapoa Olio Frijitu eta Ogi Patatekin

Fruitu Gorrien Infusioa Bainilla Ixozki Kremarekin

Etzeko ogia eta ardoa barne.



HOTEL
MONDRAGON



Biteri Etorbidea, 16

Tel.: 943 71 24 33

20500

ARRASATE - MONDRAGON

(Gipuzkoa)

**Zatoz geurera
San Joan eguna
ospatzera!!**

Hotel Mondragon-en
elkar ikusiko al dug

U?



**Zeramika
erakusketa
eta salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22-B

Tel.: 943 79 81 80 • Faxa: 943 79 81 80

ARRASATE



Jaio berri,
haur eta
neska-mutilentzako
moda

Erdiko kale, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 93 33

- Jantziak
- Zapatak
- Haur-kobreak
- Haur-aulkiak



ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75


Arrasatearrok 430 milioi pta jarriko ditugu parrokiako lanak ordaintzeko

San Joan Bataiatzailearen parrokia zaharberritzeko lanen kostua 510 milioi pta.tan jarri zen. Horren arabera egin zen gastuen partiketa Arrasateko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arrasateko kristau komunitatearen artean: bakoitzak kostuaren herena jarriko zuen, hau da, 170 milioi pta.

Halabaina, geroago erabaki zen kanpaiak eta lanak hasi ondoren aurkitu ziren hainbat eta hainbat irudi, margolan, etab. konpontzea. Horrek 90 milioi pta.ko gainkostua ekarri du. Beraz, parrokiako lanek 600 milioi pta.ko aurrekontua izango dute azkenean.

Baina nork jarriko ditu 90 milioiak? Arrasateko kristau komunitateak, parrokiak ez baitu nahi txakur txikirik ere eskatu erakundeei: "Arrasaten badago dirua eta ordainduko dugu".

Parrokiako zaharberritzea
600 milioi pta



Arrasateko 800 herritar hileroko kuota bat ordaintzen ari dira, Haziendak %20an ken dezakeena. Beste 20 herritar, berriz, diru dexente ematen ari dira: aldian behin milioi eta bost milioi artean, esate baterako. Batzen baditugu Arrasateko Udalak jarriko duen dirua eta

herritarrek jarriko dutena, azkenean arrasatearrok 430 milioi pta ipini-ko ditugu.

Hala ere, 60 milioi pta.ko zorra geratuko dela aitortu du on Jose Maria Astigarragak. Horregatik eskatu nahi die dirua jartzten ari diren herritarrei segi dezatela laguntzen, beharko da eta.

Euroa

Bi kontu korrante beharko ditut, euroa eta pezeta batera dabiltzan bitartean?

Ez da derrigorrezkoa, zure bankua edo aurrezki kutxa arduratuko baita fakturen kopuruak automatikoki eurotan edo pezetatan jartzten, beti ere truke ofizialean. Hainbat finantza-erakunde kontu laburpenen eredu berria prestatzen ari dira, eurotan egindako ordainketak pezetatan ere ager daitezen.

Euro baten balioa

167,4 pta




AMI OINETAKOAK

oinetako en autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 943 77 14 65

... **LILURATA** ...
OIHALAK
San Joanetan ondo, ondo pasatu
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72



JAVIER ORTEGA (PARROKIA ZAHARBERRITU DUEN ARKITEKTOA)

“Sinesgabetasun garai honetan”

Belgikan egin zituen arkitekturako ikasketak. Itzultzerakoan, Castor de Uriarte arkitekto laguntzaile markinarrekin hasi zen lanean. Castor On Jose Maria Arizmendiarrietaren laguna zen eta kooperatiba mugimenduak indarra hartu zuenean, biek Ulgorren lehen bulegoak egin zituzten. Harrezkero Javierrek kooperatiben eta bide batez herriaren bilakaeran parte hartu du.

— Zenbaezinak dira Arrasaten egin dituzun lanak...

— Ulgorren bulegoak izan ziren nire lehenengo lana Arrasaten. Kooperatibekin lotura estua izan dut. Nik egin nituen Euskadiko Kutxako eraikinak, aparkalekuak, baita txanpinoi famatua ere. Horrez gain, Alejandro Altuna eta Joma enpresentzako pabilioiak, Musakolako kiroldegia eta hiru frontoiak, Eguzki dorrea, Institutua... Azkena parrokiaren zaharberritzea izan da.

— Mota guztietako eraikinak egiten dituzu orduan...

— Izatez, nire espezialitateak kirol instalazioak dira. Espainiako Erregeak eman zidan iaz Kirol Arkitekturako lehen sari nazionala. Baina ni bokaziozko arkitektoa naiz. Gaur indarretxe nuklear bat egiteko aukera emango baliadate, egin egingo nuke. Azken finean, arkitektura gizakiaren etxea da. Etxea bizitzeko, etxea lan egiteko, etxea atsendena hartzeko, kirola

egiteko, edo beste edozertako.

Gizakiari eta bere jardunari espazio aproposa ematea da arkitektura.


— Zure lanek badute berezitasunik?

— Ariketa fisikoa, hau da, kirola, gizakiaren kulturari

datzekion espazioa da. Eta hori da nik defendatzen dudana. Kirol instalazio bat eraikitzerakoan ez dut kirola egiteko bakarrik egiten. Gorputzaz gain, espiritua, bokazioa, edo zaletasunak ere lantzeko aukera eman beharko lituzkete. Gaur egun jolaserako kultura zentruak eta kirol zentruen uztartzea lortu nahi izan dut. Udalek kirol instalazioak egiten dituztenean gizakiaren arlo guztiak hartu beharko lituzkete kontuan.

— Herri baten nortasuna edo bizitza bere arkitekturaren ikusten da?

— Noski. Baina bakarrik lan handiak geratu ohi dira.



Munduko gosez hitz egiten bada, aldarearen horman irudiak erakutsi ahal izango dira. Zergatik? Jendeak ikusi egin behar duelako.

etan, hainbat eliza eraiki ditut”

Egipton ez dira herritarren etxeak geratu, piramideak bakarrik.

— Nola sortu zen Arrasateko parrokia zaharbertze-ko ideia?

— Arrasatek izugarritzko bizitasuna izan du beti. Behe Erdi Aroan ere herri garrantzitsua zen, iparraldeko alde honetako eliza gotiko lehenetarikoa eraiki baitzuen. Orain dela hamar bat urtetik hona jende askori entzun izan diot parrokia zabortegei bat zela. Garai hartan Jose Maria Astigarraga etorri zen. Parrokoak sena eta sentiberatasuna izan ditu Arrasateko tenplu gotikoak duen garrantziaz konturatzeko. Orduan Migel Maria Lasa arkitekto arrasatearrak parrokiaren egoeraren ikerketa oso ona egin zuen. Gauzak mugitzen hasi ziren eta batzorde eragilea sortu zen. Hori da Arrasatek duen balorerik garrantzitsuena:

bizitasun handiko pertsonak. Edozein helburu lortzeko elkar-tu eta lan egiteko prest dauden pertsonak.

— Parrokia zaharbertze-ko zein izan da gainditu behar izan duzuen eronkarik handiena?

— Lan egiteko epeak garaiz betetzea. Hasieratik batzorde eragileak argi izan zuen lanak ezin zirela hamar urtez luzatu, jendea aspertuz gero, bukatu-gabeko lan bat izan zitekeelako. Iturriotzeko alde ere aurre-ratu egingo dugu eta aurten

bukatuko dugu. Horrez gain, zaharbertze osoa egin dugu. Nik uste penintsula osoan egin den bakarra dela.

— Aldarea oso aldatuta dago. Zergatik?

— Egin duguna zera izan da: aldea garbitu gaurko kulturari egokitzeko. Are gehiago, irudien eta hitzen proiektioa egin ahal izateko aukera eman dugu. Munduko goseaz hitz egiten bada, aldarearen horman irudiak proiektu daitezke. Gaurko kultura telebisioa dela eta, jendeak ez du

hitzaldiaren mezua bere osotasunean jasotzen. Jendeak *ikus*i egin behar du.

— Gaurko materialeak, adibidez argiak, koruko burdinazko egitura, kristalezko ateak..., ez dute kontraste larregirik egiten?

— Guk ditugun datuen arabera, parrokiak 16 aldare eduki izan ditu. Pentsa zenbat aldaketa egin diren harrezkero. Batzuek orain harriak beltzagoak jarri ditugula edo bestea aldatu dugula esango dute, baina kontuan hartu behar dute eliza *kontserbatzea* izan dela gure lana. Guk ez daukagu Erdi Aroan erabili zuten materiala. Gaurkoa erabili behar, nahi eta nahi ez.

— Gustura geratu zara egindako lanarekin?

— Bai, eta uste dut arrasatearrei ere gustatuko zaie-lan.

Hiru faktore eman dira Parrokia zaharbertzeko: Jose Mari Astigarragaren sena, Migel Maria Lasaren ikerketa eta batzorde eragileak egindako lana.

ESKIÑA taberna

Zorionak eta ondo ibili San Joanetan!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

PUB HAIZEA



ARROGOI TABERNA

San Joanak iritsi dira, zatorz zuzana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

Haurrak plazara!

Igandean Haur Dantzarien Eguna egingo da

San Joan jaiei aurrea hartuz, urtero moduan, igande honetan ere dantzariak beteko dira Arrasateko kaleak Haur Dantzarien Eguna ospatzeko. Goizean goiztik 300 haur baino gehiago ibiliko dira gure kaleetan zehar, Euskal Herriko dantzen erakustaldia egiten.

Haur Dantzarien eguna bailaran egiten den jaialdia izaten da. Deba Garaiko herriek urtero egiten duten topagunea, urtean zehar dantzetan ikasitakoa, plazara eramateko. Mondragoeko bi dantza taldeek antolatzen dute egun hau gure herrian: Arrostaiz eta Lore Gazteak taldeek.

Igandean Antzuola, Bergara, Oñati, Soraluze, Aretxabaleta, Eskoriatza eta, jakina, Arrasateko dantzari txikiak ibiliko dira.

Hauetaz gain, probintzia bakoizko talde bat gonbidatu dute: Iruñea, Zarautz, Galdakao eta Gasteizeko taldeak etorriko dira. Iparraldekoek



Euskal Herriko haurrak bilduko dira Mondragoen.

aurten kale egingo dute.

Haur Dantzarien Eguna aspaldiko ohitura da. Gomix Bengoak, Lore Gazteak taldeko arduradunak kontatzen du: "oso aldatu da egun hau.

Francoren garaian euskal kulturaren adierazpen gisa jaio zen ekitaldia. Sortu zenean, zentzu errebindakatiboa zukan. Nahi zen Euskal Herriarekin zerikusia zuten gauzak

kaleratzea. Urte haietan oso egun polita eta berezia izaten zen. Herri guztiak erantzuten zuten, denok irteten zuten kalera". Gaur egun berriz, gauzak dexente aldatu dira.

Dagoeneko galdu egin du egun honek eskabide kutsua, eta haurren jai egun bat bezala ikusten dugu gehienok. Antolatzaileek arazoak izan dituzte, Arrasatera etorriko diren haurrak bazkaltzera eramateko. Ohitura da kanpotik datozen dantzariak herriko etxeetara joatea bazkaltzera. Baina, geroz eta gutxiago dira haurrak euren etxeetan hartzeko prest daudenak. Gomixek dio konpromiso falta dela: "jendeak nahiago du konpromisorik ez hartzea, badaezpada, eguraldi ona irteten badu, edo beste edozer gauzagatik".

Dena den, azkenean 300 dantzari izango ditugu igandean gure kaleetan barrena, euskal dantzen erakustaldia egiteko.



Yoaz
oinetakoak

Jai zoriontsuak izan!

Biteri, 13
Tel.: 943 79 21 71
ARRASATE

Barrenkale, 9
Tel.: 943 76 22 86
BERGARA


Zubizameta




GALERIA 44

Denda berezia
Ondo pasatu San Joanak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 943 - 79 90 50 • ARRASATE


JOSE MARI SALEGI

HARATEGIA · URDAITEGIA



**Jaiak ondo
pasatu**

Olarte kalea, 20 • Tel.: 943 79 45 55
ARRASATE



**LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIETARAKO ETA
LARRUZKO ARTIKULUAK**

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tel. / Faxe: 943 - 79 14 84



**Aupa arrasatearrak!
Aupa San Joanak!**

**A S E S O R I A
A R R A S A T E**

- Juridikoa
- Fiskala
- Laborala
- Zurich
aseguruak
- BANKINTER

*Erdiko kalea, 32 - 1. I
ARRASATE*

Tel.: 943 - 79 01 47 • Faxe: 943 - 79 73 00



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

aste gazte

■ **IKASTAROAK**

• Arrasateko Enplegu Zerbitzuak, Autoenplegua eta Enpresa Ekimenak Sustatzeko Ikastaroa antolatu du, irailetik aurrera hasiko dena. Izena emateko epea: ekainak 30.

■ **LANA**

• Arrasateko Udalerako, irriti teknikaria eta ingurugiro eskolako irakaslea behar dira. Epea: ekainak 22.

• Noaingo (Nafarroako) Musika Eskolarako, biolontxelo irakaslea behar dute. Epea: uztailak 1.

• Billabonako Udalerako, kirol eragilea eta gazte informatzailea behar dute. Epea: BOEn argitaratu zain.

• Deba Garaiko Mankomunitateak administrazio laguntzaile bat kontratatu nahi du hiltegirako, zazpi hilabeterako.

Eskariak eta dokumentazio osagarria ekainaren 26aren arratsaldeko 15:00ak baino lehen Deba Garaiko Mankomunitatean aurkeztu beharko dira. Arrasate Pasealekua, 5 behea, Arrasate. Tel.: 943 79 33 89-99

■ **LEHIAKETAK**

• Komiki ez sexista lehiaketa Arrasateko Emakume Sailak eraturtik, bitik lau orri bitarteko luzera, euskaraz edo gaztelaniaz. Epea: uztailak 13.

• Donostia Hiria literatura sariak, ipuina eta antzerkia modalitateetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: urriak 31.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

NEREA MAKAZAGA, URRUZUNO POESIA SARIA

“Iraganaren eta etorkizunaren inguruko poesia idatzi nuen”

Nereak 16 urte ditu, BBBko 2. maila amaitu berri du Arrasateko Institutuan. Urte honetan dagoeneko bi literatura sari irabazi ditu: AEDren literatura lehiaketa eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Urruzuno lehiaketa.

Ez omen zuen espero saririk irabaztea, baina... Bi kasuetan poesia lehen saria lortu du. Arrasateko poeta berria?

— Zer kontatzen duzu Urruzuno lehiaketan aurkeztu zenuen “Hegoak eta Ilunbetako Neskaxa” poesian?

— Etorkizunaren eta iraganaren inguruko gogoeta da. Etorkizuna da aurretik duguna, egun batean iritsiko dena. Komeni zaiguna egin behar dugu: batzuetan iragana hartu, eta besteetan etorkizuna. Ideia haiek landu nituen poesian. Azkar idatzitako lana da, lehiaketara aurkeztea erabaki eta asteburu batean idatzi nuen.

— Idazteko ohiturarik baduzu?

— Bai, baina tira, ez dut asko idazten. Noizean behingo gauza da. Batez ere ikasgelan agintzen digutenean idazten dut.

— Beti idazten duzu poesia?

— Bai, orokorrean bai. Nik nahiago dut poesia prosa baino. Prosan ezin ditzakezu gauzak labur esan. Luzeagoa da, denbora luzeago behar duzu zerbait adierazteko, ezin duzu *collagerik* egin. Niretzat poesia erosoagoa da.

— Baduzu idazteko txoko berezirik?

— Gehienetan nire logelan idazten dut, baina beste edonon ere idatz dezaket. Egia esan, badut mania txiki bat. Nire ingurua txukun behar dut,



idazten hasteko, nahiz eta gero nire logela guztiz txukun eduki ez.

— Nola sentitzen zara beste batzuek zure lanak irakurtzen dituztenean?

— Lotsatu egiten naiz. Ez zait gustatzen jendeak nik idatzitakoa irakurtzea. Kritikaren beldurra ere izaten dut.

— Zein da gustukoena dituzun idazlea eta liburua?

— Oso zaila da esatea. Bernardo Atxaga gogoko dut. Irakurri dudana azken liburua “100 metro” izan da, Ramon Saizarbitoriarena, eta oso gustatu zait.

Baina ez dut asko irakurtzen. Liburuak hasten ditut, baina sarri erdian edo, uzten ditut. Gutxitan egin dut liburu bat hasi eta bukatu.

— Zein da Urruzuno lehiaketan irabazi duzun saria?

— Nire lana Urruzuno lehiaketako liburuan argitaratuko dute. Beste saria da irailan Europara egingo dugun bidaia.

“Lotsatu egiten naiz beste batzuek nire lanak irakurtzen dituztenean”.

x1



EGUZKITARAKO BETAURREKOAK
ERAMAN EZAZU BLUES BROTHERS
TALDEAREN MUSIKA





**Kalitatea
saltzen dugu.**

PREZIO HOBERENAK EGUZKITARAKO BETAURREKOETAN

x2



EGUZKITARAKO BETAURREKOAK
INSTITUTO OPTIKOAK
EUSKADIRAKO EGINDAKO POLO
ESKLUSIBO BAT OPARITUKO DIZU



<p>INSTITUTO OPTICO Erdiko kale, 22 20500 ARRASATE 79 71 68</p>	<p>INSTITUTO OPTICO Andra Mari, 8 48200 DURANGO 94 6202986</p>
<p>INSTITUTO OPTICO Hiper Eroski 20500 ARRASATE 79 78 26</p>	<p>INSTITUTO OPTICO Grupo San Ignacio, 3 48200 DURANGO 94 6818492</p>
<p>OPTICA GARAGORRI Iturriotz, 29 20500 ARRASATE 79 16 98</p>	<p>INSTITUTO OPTICO Erdiko kale, 21 20830 MUTRIKU 943 60 31 54</p>



GASTON Y DANIELA

Tapizeria • Mocketak Alfonbrak





Alfonbra eta
oihalez gain,
haur eta
gaztetxoentzako
altzari sail berria
aurkituko duzu!

Kruz Gallastegi, 3 • **BERGARA** • Tel: 943 - 76 07 37



Beatriz

oinetakoak

1946-1998

*50 urteko muga gainditu
dugu zure oinak jazten!*

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33



Argazki hau orain berrogei bat urteko San Joanetan aterata zen. Artean euskal jaiak antolatu ohi ziren herriko jaietan eta urte hartan euskal ezteiak egin omen ziren.

Jende asko bildu zen ikuskizunera. Batzuk, gazteak, egun hartarako

arropa bereziak jantzita. Besteak, zaharrak, betiko moduan apainduta. Argazkilaria liluratuta geratu bide zen kontrasteaz eta harrapatu nahi izan zuen une hura. Esan liteke plaza osoa argazkilaritari begira geratu zela.

Zoritzarrez, ezin izan dugu argazkiko guztien izenak lortu. Amandrea

Saturnina Lizarralde zen, Makatzena baserrikoa. Aitajauna, oster, Martin Egidazu, Arruenekoa. Ezkerretik hasita bigarren gizona, berriz, Juan Bautista Usandizaga, udal kamineroa.

Atzeko neska-mutilen artean izen hauek ezagutu ditugu, besteak beste: Arantxa Balerdi, Pilar Ubago eta Pilar del Valle.

Berriemailea:
Karmele Zuazubiskar,
Juli Arana eta Mertxe Juldain.



Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 943 79 80 50 • ARRASATE

*Hurbil zaituz
eta lastatu gure
ozi eta pastel
bereziak!*

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

BAKAILO ETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailaoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07



**Era guztietako
artikuluak
ile apaindegietarako**

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



*Jai zoriontuak
opa dizkizuegu*

BITXI LANTEGIA
Zure gustuko bitxiak!

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
Tel.: 943 77 01 44 ARRASATE



ZURICH
ASEGURUAK



Casimiro Briz Salinero
Aseguru-Aholkularia

Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tel./Faxa: 943 79 42 35 • Tel.: 943 79 71 52
ARRASATE

DAGLAS bideo-kluba

6.000 film baino gehiago
Filmik berrienak

Informatikan berrikuntza guztiak prezio onenean

BEPP banatzaile ofiziala

Otalora Lizentziatua, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 78 19

GOIZ-ALDE

GOSARIAK, PLATER
KONBINATUAK ETA
MERIXENDAK

Iturriotz, 33 • Tel.: 943 79 11 15

MERKEKILO

Oihalak
Kortinak

Ferrerias, 5
Tel.: 943 79 15 00

Zorionak Arrasate!



XXIX. DERIOKO UDAKO EUSKAL IKASTAROA

Ekainaren 29tik uztailaren 11ra

- Alfabetatzea
- Itzulpengintza
- EGA
- Bertsolaritza
- Mintzamena
- Hobetze maila
- Euskalduntzea

**Euskaraz
gogotsu!**

LABAYRU IKASTEGIA

Aretxabaleta 1, 1
(Indautxuko plaza)
BILBO
Tel/Faxa: 94 443 76 84
E-maila: labayr01@sarenet.es



San Joanetako hirugarrena edo kuadrilen eguna. Hori bai eguna! Kuadrila guztiak mozorrotuta irtetzen ziren kalera eta batzuek bizitzatik ateratako gertakariak antzezten zituzten. 1957ko ekainaren 26an sekulako ikuskizuna antolatu zuten argazkikoek: ezkontza euskalduna, Ezkongaiak, apaiza, mikeletea, gonbidatuak eta musikoak. Ez zen inor falta izan.

Emaztegaiaren arreo, idi pareak eramandako gurdian eraman zuten. Harrezkero argazkiko gazte asko ezkontu egingo ziren, baina ezkontzako argazki politagorik ez zuten lortuko...

Ezkerretik hasita, Mikeletea Rafael Mendikute, aldameneko gonbidatu gaztea Jose Antonio Altuna, piparekin Jesus Maria Ezkurra *Antxola*, neska gaztea Asun Madina, apaiza Antonio Atxa, kopadun

txapelarekin Jose Maria Barinagarrementeria, emaztegaia Begoña Olazabal, atzeko neska Kontxita Martinez, senargaia Benito Galdos, baserritar jantzitako neska Mari Karmen Ziardegi, aldamenean txapela buruan Jose Luis Atxa, bere aurrean Mertxe Trujaola, abanikoarekin Glory Azkargorta, aldameneko gizon dotorea Jesus Mendizabal, idien kargu egiten zen baserritarra Agustín eta soinu-jolea Aran-

txa Alonso *Txomin Txiki*. Hurrengo ilaran, pandero jole Eusebio Iñarra, neskatila Arantxa Jauregibarria, lurrean eseritako taldea Jose Aiausti, Mari Segura, Montxe Jauregi eta Luis Gorostiza. Amandrea Itxiar Zumelaga eta aittajauna Miguel Castañares. Lurrean eseritako mutila Juan Luis Kortabarria.

*Argazkia eta berriak:
M^a Angeles
Muuruamendiaraz..*

URRIN

**TABERNA
JATETXEA**

JAI ZORIONTSUAK!

URIBARRI, 22 • ARRASATE
TEL.: 943 79 95 24



TABIRA

Dietista • masajista
psikologoa

Munar, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 73 54

**ZABALA
oinetakoak**

50 urtean elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun San Joanak
Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 943 79 20 52
ARRASATE

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!



Aze poxpolinak! 50. hamarkadan, San Joanak ez ziren, ez, nolanhikoak herrian. Neska gazteak dotore-dotore jantzi eta pasieran ibiltzen ziren kalean gora, kalean behera. Atzetik, —52an ateratako argazki

honetan ikusten den bezala— mutil gazteak gortea egiten. Auskalo zenbat amodio sortuko ziren San Joanetako eguzkipean!

Gure poxpolinak, honako hauek dira, ezkerretik hasita: Maria Azkarate, Santa Agedakoa; Ana Maria Amozarrain, arrasatearra; Nieves Reguera,

Errenteriakoa; Josefina Heriz, Jaiberrikoa; Otxoa ahizpak, Maria eta Dolores, garagartzarrak; eta Ante baserriko Uribarren ahizpak, Salu eta Karmen. Inguruari, gaur egun hotel berria dela eta ezaguna bada ere, lehen Reré tabernak ematen zion fama. Jai egiteko giro aproposa.

*Argazkia eta Berriemailea:
Iñaki Yarza.*



- Inportazioko autoak
- Marka guztiak
- Kalitate-preziorik onenak



- Sarrerarik gabeko finantziazioa
- Mota guztietako autoak

• BOLUMENBAKARRAK • LURROROTAKOAK • FAMILIARRAK

Amillaga, 10 B • BERGARA (ITV ondoan) • Tel./Faxa: 943 76 04 58

KALITATE KONPROMISOA

NACEX.Sen bete egiten ditugu geure konpromisoak. Horregatik, hiru urtean zehar ondo egindako lanaren ondoren, AENORek ematen duen ISO 9002 Ziurtagiria lortu dugu.

Berre bat gehiago Nacex.Srekin lan egiten duten enpresentzat eta kalitate konpromisoa etorkizuneko bezeroekin.

Arrasate

943 79 92 77

Bizkaia Etorbidea, 16 behea



TOTEM OINETAKOAK

BODY PIERCING



TATUAJEAK



- Behin erabili eta botatzeko material klinikoa
- Diseinu aukera zabala
- Bitxitegi profesionala: altzairu kirurgikoa, titanioa eta abar



Olarte, 41 • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 49 72a



gidari onenek merezi dute

Zatoz MAPFRE ra Areagotu zure hobariak

Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin, gaur egungo polizaren antzintasuna gorde ahal izango duzu.

(95-I-I baino lehenago edozein konpainiatan kontraturiko polizentzat)

Lor itzazu **hobariak onenak denborarik laburrenean.**

Automobil Aseguruetan dagoen **Lehen** Erakundearen babesarekin.

3.000.000 ibilgailu baino gehiago aseguratutik eta 2.400 bulego, bezeroak zaintzeko.


Asegura ezazu zeure autoa behar bezala.



Ondo gidatu. Seguru ibili.

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00

Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31



BEREYA SAL elektrizitatea

• ALARMAK. TB. SATELITEAK

• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

• ANTENA KOLEKTIBOAK

• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK

• SOINU INSTALAZIOAK

• TB ZERBITZU TEKNIKOA

• KONPONKETAK OROKORREAN

• ATEZAIN AUTOMATIKOAK

Erdiko kale, 50 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 79 / Mug.: 908 57 90 24 / Faxe: 943 77 15 34

Arrasate Irratia kalean ibiliko da San Joanetan

Arrasate Irratiak larunbat honetan bukatuko du neguko programazioa. Ondoren, San Joanetako saio bereziak etorriko dira eta jaien ostean udako programazioa. Aldaketa franko, beraz, begi bistan.

Astelehenean, hilak 22, musika izango da nagusi goizean zehar: *Zoro Klasikoak*, Arrasate Musikali eskainitako saio berezia eta AEDk eraturtako *Amets Gaua* emango baitira.


Asteartean, San Joan bezperan, giroa berotzen hasiko dira: asteburuko jarduna bate-tik eta aurreikuspenak beste-tik, dena Arrasate pasealeku-



Aitziber Aranburuzabala.

ko estudiantik egina.

San Joanetan, hau da, astelehen, astearte eta asteazkenean, goizeko 09:00etan hasiko dira irratsaioak, goizeroko



Gari Kortazar.

entzierroak zuzenean emanez. Horretarako hiru kazetarik hitz egingo dute ibilbidearen hiru tokitatik. Hortik aurrera, tartekatuta egingo dira estudioko

lana eta kalean zuzenean egingo diren elkarrizketak. Horrela, eguerdi partera arte. Egutegenero-egutegenero gertaera guztien erreperaso ere egingo da.

Larunbatean, berriz, isildu egingo da irratia. Udako programazioak dirauen bitartean ez da irratsaioak egingo larunbatetan, laguntzailerik ez dago eta.

Udako programazioa ekainaren 29an hasiko da, astelehenean. Goizeko 09:00etatik 11:00etara *Kerizpean* uda zaporeko magazina izango da, gai arinagoak jorraturuz: albisteak, lehiaketak, ibilaldi proposamena... denetik apur bat, giro lasaian. Ondo ibili!

ileapaindegia

Tel.: 943 - 79 37 88 • ARRASATE



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA

Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

TXURI - BELTZ
JAIETAKO GIRO EDERRENAN GOZATU

Iturriotz 33 - ARRASATE



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tel.Faxa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 78 05 60
OÑATI



BiRiBiL

**Edari eta tabakotan
espezialistak**

Zarugalde, 35 • Tel.: 943 - 79 09 53 • ARRASATE

**SAGASTA
HARATEGIA
-OLATXO-**

San Joan jai
zorionsuak
pasatu!

Maalako Errabala, 7 • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 13 22

San Joanak Seberon

Salbea: Parrokia berriztuan eta ATBn.

Aurtengoan Salbea berezia izango da: San Joan Bataiatzailearen Parrokia berriztuan egingo da, azken urteotan San Frantziskon egin ostean, parrokiako lanak zirela eta.

Iaz bezala, Arrasate Telebistako kame- rek oso osorik grabatuko dute Salbea. Bi kamera sartuko dira elizara ekitaldia jarraitzeko. Horrela, parrokiara hurbiltzeko aukera ez duzuenok, egunean bertan **ekai- naren 23an** etxetik lasai ikusi ahal izan- do duzue zuen herriko telebistan.

- Salbea, gaueko **21:45**etan eman- go du ATBk.
- Lehenago, **20:00**etan, iazko San Joan jailetako unerik onenak gogo- ratzeko bideo bilduma.

Dantzak: nola soinu, hala dantza.

Azken aldi honetan gure artean dan- tza zaletasun handia dagoela eta, saio berezia prestatu du Arrasate Tele- bistak.

Sebero Altubera eta ATBra areto dan- tzak iritsiko dira San Joan egunean, **ekai- naren 24an**.

Natalio Maiztegi dantza irakasleak eta bere taldeak emanaldia eskainiko dute. Karibe aldeko dantzek eta Argentinako tangoek ere izango dute lekurik.

Arantzazu Lagunilla eta Itxaro Zubi- laga izango dira saioa aurkezten.

- Dantza emanaldia Seberon izan- go da, arratsaldeko **18:00**etan.
- Nahiago duzuenok etxean ikusi, ATBk **20:00**etan eskainiko dizue.

Makina bat saio umeentzat

Herriko txikienek izango dute zer aukeratu Sebero Altuben eta ATBn.

Ekainaren 24an eta **25ean Ze bero ATBn** lehiaketa saioa egingo da. Esku har- tzen duten taldeek Kaittin Allendek eta Aitziber Langaranez jartzen dizkieten frogak gainditu beharko dituzte.

Txatxilipurdik eta ATBk *Karaokea* prestatu dute **ekainaren 25erako**. Ziur honez gero bateren batzuk gustuko- en dituzten abeslarien kantak prestatzen hasi- ta daudela. Saioa Eider Otxoak aurkez- tuko du.

Imitazioak egitea atsegin dutenek, **ekainaren 26an** izango dute aukera, *Iza- rren Zaparradan* izeneko saioan.

- *Ze bero ATBn* eta *Izarren Zapa- rrada* Seberon egingo dira, eguer- diko **12:00**etan.
- Telebistak, berriz, **14:30**etan eskainiko du.
- *Karaokea* arratsaldeko **18:00**etan izango da Seberon.
- Etxean **20:00**etan ikusi ahal izan- go duzue.

RAMÓN OTAMENDI
HARATEGIA

Berezitasunak:
Hemengo okela, buzkantzak eta txorizoa

Ferrerias, 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28

Jai Zoriontsuak!



Sebero Altube, 8 • Tel.: 943 79 94 99 • ARRASATE

HEMEN
gozotegia
Brasileña kafeak
Kruasandegia

on eta ATBn

Bertsolariak: bi ekitaldi

Bertsozaleek Seberon eta ATBn egingo dute topo, AEDk bi egunean antolatutako saioan.

San Joan egunean, **ekainaren 24an**, Maialen Lujanbio eta Anjel Mari Peñagarikano arituko dira bertsoan.

Bestalde, **ekainaren 25ean**, Eskualdeko Bertso Eskolak egingo du saioa.

- Bertso saioak arratsaldeko 19:20etan hasiko dira, Seberon.
- ATBn 21:45etan emango dira.



San Joanak 98. Bideo bilduma

ATBko kamerek jaietako ekitaldi guztiak jarraituko dituzte,

kalean bizi den giroa ikusi eta arrasatearren nondik norakoak jasotzeko.

Hori guztia bideo bilduman ikusi ahal izango duzue.

- San Joanetako bideoak ekainaren 24an eta 25ean ikusiko dira, iluntzeko 21:15etan.
- Ekainaren 26an, berriz, arratsaldeko 20:00etan.



AREITIO

Kirolzalea bazara

zatoz AREITIO KIROLAKera

*Jai zoriontsuak eta
gora Arrasate!*

Zarugalde, 35
ARRASATE

Tel.: 943 79 38 38

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Arrasateko Bizkaia Etorbideko 14. zenbakian, etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 22 92.

3. Errentan emateko

• Torrevejan etxebizitza alokatzen da, 15 egun edo hilabeterako. Hondartzatik hurbil. Jantzita dago. Tel.: 943 78 14 72.

• Etxebizitza alokagai Peñiscolan, udako hilabeteetan. Kirolgunea: pilotalekua, igerilekua, e.a. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 - 79 57 31.

• Laredon apartamendua jarriko nuke alogeran San Joan astean edo uztaileko bigarren hamabostaldian. Tel.: 943 79 31 47.

• Zarautzen etxebizitza alokagai. San Joanetarako edo uztaileko. Tel.: 943 83 12 53.

• Etxe bat alokagai Donostian, uda parterako. Tel.: 943 79 14 99 edo 943 21 53 98.

• Torrevejan apartamentua alokagai. Hondartzatik 100 m.ra dago. Egon-gela-jangela eta bi logela. Tel.: 943 77 03 85.

Bungalow bat alokagai Peñiscolan, uztaileko bigarren hamabostaldian edo irailean. Tel.: 943 77 05 88.

4. Errentan hartzeko

• Bi logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel.: 943 77 13 87.

• Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 77 13 20. Ainhoa.

• Etxebizitza merkea, erosi edo alokatuko nuke. Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 79 28 30.

5. Etxe konpartituak

• Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailearen erdialdera arte. Tel.: 943 79 98 70. Txema.

• Arrasateko alde zaharrean gela bat dugu alokatzeko. Berri gehiagorako, deitu gaez 943 79 96 79 telefonora. Jose Luis.

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Eguerdietan.

• Gela baten bila nabil etxe konpartitu batean, Arrasaten. Tel.: 929 96 85 87. Juanjo.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineako dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 79 87 59.

• Donostian etxea osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 943 79 74 03.

• Eskatu pabilioian garajea alokatzen da. Tel.: 943 79 59 08.

GARAJEAK

7. Saldu

Garajea salgai, Roneoko etxeetan, lehenengo solairuan. Tel.: 943 79 18 70.

• Garajea salgai Roneoko etxeetan, lehenengo solairuan. Tel.: 943 79 52 41.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai, Roneoko etxeetan. Tel.: 943 79 19 64.

LOKALAK

14. Errentan emateko

• 130 m²ko behe komertziala alokatzen da Izarra dorrean. Tel.: 943 79 25 26.

LANA

17. Eskaintzak

• Andra euskaldunak etxeko lanak egin, eta umeak eta pertsona nagusiak zainduko lituzke. Arratsaldean egingo luke. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak pertsona helduak zainduko lituzke, etxeetan edo ospitalean. Gaez ere bai. Tel.: 943 79 34 09.

• Neska prest ile apaindegian lan egiteko. Tel.: 943 79 53 57. Goizez edo gaez.

• Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 79 68 77. Vanessa.

• Neska arduratsua prest umeak zainduko. Tel.: 943 71 53 74. Goizetan edo 20:00etatik aurrera.

18. Eskaerak

• Lanak ordenadorez pasatzeko per-

tsona bat behar da. Tel.: 943 79 04 14.

• Zerbitzaria behar da. Tel.: 943 79 67 12. / 943 79 75 93.

• Neska bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko Uribe auzoan. Tel.: 943 77 03 05.

• Jangelan lan egiteko zerbitzaria behar da. Kontratua egingo da. Tel.: 945 44 50 95.

• Uztaile eta abuzturako emakume edo neska autodunak behar dira Aramaion pertsona helduak zaintzeko. Tel.: 945 23 34 12.

• Zerbitzu arloan lan egiteko komertzial bat behar da. Tel.: 943 77 17 68.

• Emakume bat behar dut taberna garbitzeko. Tel.: 943 44 50 95.

• Publizitate saltzailea behar da Jardun elkartearen proiektu berezia bultzatzeko. Bidali curriculumak ekainaren 22a baino lehen, helbide honetara: Jardun elkarte. Kartzela zaharra, Juan Irazabal kalea z/g. 20570 Bergara.

• Ite apaintzailea behar dugu asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 77 09 44.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Eskola partikularrik ematen ditut Aretxabaletan. Tel.: 943 79 94 04 / 943 77 17 42. Mari Jose.

• Psikologoak laguntza emateko geratu irakur-idazmenerako zailtasun eta oinarriko ikasketetarako (arreta, perzepzioa, oroimena). Tel.: 943 79 86 28.

• Zuzenbideko ikasle bazara edo azken kurtsoan baldin bazbiltza, lehiaketak prestatu eta eskola praktikakoak izateko aukera duzu. (Uztailen eta irailean ere, eskolak). Tel.: 943 79 13 09. Begoña.

• Euskal filologiako ikasleak, udaran eskola partikularrik emango lituzke. Euskara, gaztelania... Tel.: 943 79 29 20.

21. Eskaerak

• Ingelesko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 99 41. Beatriz.

• Ekonomiako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 77 05 25.

• Frantseseko eskolak hartuko nituzke.

Aldibi

Zorionak!



Zatoz eta
ezagutu
gaitzazu!!

Milesker zuen konfiantza
Aldibirengan
jarri duzuen guztioi
Ondo pasa San Joanak!!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



**MITSUBISHI
MOTORS**

Aldikar autoak, S.L.

ke. Tel.: 943 79 79 63. Deitu arratsaldez. Igor.

• Etxean eskola partikularrak hartuko nitzuke, BT 2. mailako elektroteknia, matematikak, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 79 34 53

MOTORRA

23. Saldu

• BI - BF matrikuladun autoa salgai. 110.000 km. ditu eta dieselduna da. Tel.: 943 76 09 12.

• Yamaha TZR 80 RR salgai. 17.000 km. VI - O matrikula. Tel.: 943 79 76 64.

• Lau pertsonarentzako kanpin erremolkea salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldea dauka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 943 79 49 28.

• Lekuz aldatu behar dudala eta, autoa saltzeko presa dut. Ford Escort L. Tel.: 943 71 53 00.

• Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 76 21 70/ 943 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.

• Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 79 80 44 Lutxi.

• Karabana tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 52 41.

• Kawasaki Vulkan 800, 93. urtekoa eta gehitutako zerbitzuekin salgai, 600.000 ptan (negoziagarriak). Tel.: 943 77 10 30.

DENETARIK

26. Saldu

• Marrazteko mahaia salgai. Erabili gabea. Neurriak: 132x93 zm. Prezio erdian. Tel.: 943 79 33 17. Gaueko 21:00etatik aurrera.

• Sukaldean erabiltzeko etxeko tresna elektriko erabiliak salgai. Oso prezio onean. Tel.: 943 79 13 26.

• Correoseko lehiaketetarako gai zerrenda salgai. MAD akademiakoa. Tel.: 943 79 60 81.

• Lau lagunentzako lekua duen dena erremolkea salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 71 52 24. 20:00etatik aurrera.

• Errepideko bizikleta saldu nahi dut. Tel.: 943 79 31 40.

• Maxi-cosia salgai 17.000 pta.tan (hamaka + txasixa = paseorako haur kotxea, aterkia daukan aukia). Tel.: 943 79 41 31.

• Jamsterra salgai, 200 pta.tan. Tel.: 943 77 17 82.

• Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezagarrak: Tuberia Columbus SLX Pinarrello JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso merkea. Tel.: 943 71 42 32. Iñigo.

27. Erosi

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosiko nuke. Tel.: 943 78 34 64. Migel Angel.

• Disko txikiak eta handiak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

• 2m.ko kaja duen erremolkea erosiko nuke. Tel.: 943 73 19 60. Joseba. 21:00etatik 22:00etara.

31. Galdu

• Maiatzaren 24an puntuzko jertsei urdina galdu nuen Zaldibarren. Inork aurkitu badu, dei egin dezala, mesedez, 943 14 06 26 telefonora. Aser.

• Maiatzaren 30ean eta 31n urrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Beta C inizialak daramatza eta 1991ko San Valentin-eko data. Aurkituz gero, deitu mesedez ondoko telefonora: 943 79 07 42. Blanki.

32. Aurkitu

• Perikito berde eta hori bat aurkitu nuen San Andresen. Tel.: 943 71 46 50.

35. Harremanak

• Kaixo, Xabi naiz eta nahi nuke 33 urtetik beherako mutilekin harremanak izan. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zenb. Oñati. 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhurtasuna.



JAIETAKO POZTASUNAZ GOZATU

Oparitarako artikuluak • Baxera Ferrerías Kalea, 28 • ARRASATE

MICROS'S Informatika

Osagarri eta memorian eskaintza bereziak!

J. Luis Iñarra, 20 Tel./Faxa: 943 79 51 11 • ARRASATE

CARMEN Ileapaindegia Solariuma

Ferrerías, 50 ARRASATE Tel.: 943 79 03 63



Mari Jose
Gora San Joanak!

OINETAKOAK

Erdiko kale, 20 • ARRASATE Tel.: 943 - 79 22 98



ARRASATE
GARBIKETAK S. COOP.

San Joanetan girorik ederrena opa dizuegu

Uribarri, 20 ARRASATE Tel. eta Faxe: 943 79 70 39

ARRASATE
AUTOZERBITZUA

Jaietan, ondo pasatu!

Uribarri, 20 ARRASATE Tel.: 943 79 52 76

"EDERTU"

Ileapaindegia • Solariuma • Depilazioa



San Andres auzoa • Tel.: 943 - 79 04 28 • ARRASATE

Dim's.

Barrutik
kanpoko
edertzeko.

Ikusi... erosi* ...

Casa Ceciaga

Maalako Errabala,3
ARRASATE
Tel•Faxa: 943 791262

DIM


* Txarteltxo hau aurkezten badiguzu
Ekainaren 30a baino lehen
%10eko beherapena izango duzu
DIM'S produktuetan.

¡NABARMEN ZAITEZ!



CORSA MUNDIAL BERRIA (EDIZIO BEREZIA)

Opel Corsa Mundial, nabarmenduko zaituen ekipamenduarekin
Direkzio lagundua, aleaziozko llantak,
atzeko Spoilerra hiru ateko autoan, tapizeria eksklusiboa.
Benetan berezia. Opel Corsa Mundial
berria kalean da.
Nabarmen zaitetz **zure bizitzako motorrarekin.**

OPEL 


PATROCINADOR OFICIAL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK